

t tipi t tapa

366



**Lamixine Antzerki
Elkarteak 10 urte**

03

Hamar urte bete ditu Berako Lamixine Antzerki Elkarteak. Nola ez, antzezlan batekin ospatu zuten urteurrena eta aro berri bati ekin nahi diotela erran dute.



**Mozorroak ateratzeko
garaia heldu da!**

GB

Eratsun eta Orabideako iñauteriei txanda hartuz, aste hondar honetan mozorroak eta joaldunak ikusiko dira Ituren, Aurtiz, Zubietan, Sunbilla eta Leitzan.

2004ko urtarrilaren 22a • XXIV. urtea

Populazioaren gorabeherak aztergai

04

EUSKARA!

EGUNERO... DÍA A DÍA

Otsaileko matrikulazioa

Izena emateko:

- Bortzirietako Euskaltegia - 948 637796
- Malerrekako Euskaltegia - 948 451555
- Leitzaldeko Euskaltegia - 948 610776



**DEITU OTSAILAREN 4a
BAINO LEHEN**

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

DATUAK...

- Berako Lamixine Antzerki Elkarteak hamar urte bete berri ditu. Urtarrilaren 2an «Oroimenak eta...» emanaldi berezia eskaini zuten gaur egungo aktoreekin eta garai batekoekin Kultur Etxean urteurrena ospatzeko.
- Ospakizun honekin, aro bat itxi eta bertze bat ireki nahi dutela azpimarratu dute Lamixineko kideek. Horretarako jende berria behar dutela jakinarazi dute.
- Joxelu Berasategi antzerki elkarteko kidea da sorreratik.



Joxelu **BERASATEGI** *Lamixine Antzerki Elkarte*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Hamar urteotan ikasitakoa eman nahi diegu ondotik heldu direnei»

Joseba OLAGARAI

Nola gogoratu zaizue hamargarren urteurrena ospatzeko antzerki emanaldi berezi hau prestatzea?

Abenduan hasi ginen zerbait egin behar genuela pentsatzen, beraz, denbora tikiak izan dugu egiteko. Zerbait ximplea baina aldi berean polita egin nahi genuen. Egia errateko, nik pila bat disfrutatu dut antzezterakoan eta antzerkia prestatzen aritu garen bitartean.

Denbora batean taldean ibilitakoa, gaur egun oraindik ari zaretenak... Jende aunitz mugitu duzue antzezlana egiteko?

Elkartean aritu diren guziak gonbidatu ditugu. Batzuk ez zeuden hemen, baina bai izpirituan. Bertze batzuk ekartzeko bideoaz baliatu gara... saiatu gara errekuperatzen ahalik eta material gehiena, gurekin nolabait egoteko guziak.

Urte guzi hauetan egindako lan batzuk ere gogoratu dituzue...

Hori da. Zatitxo batzuk hartu ditugu, antzezle bakoitzak bere memorian zer gorde duen agertzeko. Urte hauen buruan bakoitzaren gogoan eta oroi-

«Antzezle eta ikusleen arteko hurbiltasuna bilatu dugu beti eta gero eta gehiago norabide horretan goazi. Ez dadila izan “gu hemen gaude eta zuek hor”»

tzapenean gelditu dena jaso dugu, horrekin guztiarekin puzzle antzeko bat osatu dugu.

Kultur Etxea ere modu berezian prestatu duzue...

Bai, goxotasuna eta hurbiltasuna sortzeko instalazio bat egin nahi genuen eta horretarako mahaiak eta aulkiak antzezleen inguruan antolatatu ditugu. Antzezle eta ikusleen arteko hurbiltasuna bilatu dugu beti eta gero eta gehiago norabide horretan goazi. Ez dadila izan “gu hemen gaude eta zuek hor zaudete”, baizik eta jendearen inplikazioa bilatzea, beraiekin nahastea, hurbileko gauza izatea.

Hamar urte egin ditu Lamixinek... Etorkizunari begira, zer?

Hori ikusi egin beharko dugu. Egon gara momentu batean ixteko puntuan. Jende guttirekin izan gara eta

erraten genuen aro bat akautua zela, agurra prestatu eta uzteko garaia izan zitekeela. Pentsatzen genuen bertze belaunaldi bati lekua uzteko garaia zela... Baina besta hau prestatzen ari ginela pentsatu dugu, “zergatik ez segitu eta behintzat aukera bat eman ondotik heldu direnei, segida bat izateko”. Freskotasuna ekarriko duen jendea, odol berria ekarriko duena, gogoekin apuntatzen baldin bada, zergatik ez? Guri aukera hori eman ziguten hemen duela hamar urte eta guk ere hamar urteotan hartu dugun hori transmititu nahi dugu eta gogo hori eman ondotik heldu diren horiei.

Beraz, segida izan dezan jende berriari irekia da taldea...

Bai, noski, hori gustatuko litzaiguke. Pentsatzen dut izanen dela jendea inoiz ez dena ausartu edo denborarik izan ez duena eta orain, momentu honetan, gogoekin eta astiarekin dagoena. Tailer nahasia izatea nahi dugu, hau da, jende adindua, gaztea, hemengoa, hangoa... Hori hagitz aberatsa izan da eta aitzinera begira horrela izatea gustatuko litzaiguke.



Dantxarineko Bentetan merkataritza indartu egin da azken urteotan. Horrek, ordea, ez du oraindik geldiarazi Urdazubi eta Zugarramurdi urtetik urtera ttikitzen joaitea.

BASERRITIK BIZI DIREN HERRIEN GAINBEHERA GELDIEZINA DA

Lantokiak eta zerbitzuak dituzten herriak dira handitzen diren bakarrak

Arrazoi desberdinengatik bada ere, Bera, Bertizarana, Doneztebe, Elgorriaga, Lesaka, Sara eta Senpere dira azken 12 urteotan bizilagun kopuruan gora egin duten herri bakarrak. Azkain, Senpere eta Sara inguruak Lapurdiko kostaldearen efektuarengatik handitzen ari diren herriak dira. Bera eta Lesakak industriaren efektu positiboa dute bere alde, eta Doneztebe inguruak Malerrekako herri ttikien migrazioagatik eta horietan sortu diren enpresa eta zerbitzuengatik.

J. IRIGOIEN

Enplegu eta bizimodu erosoak izateko beharrezkoak diren zerbitzuekin ongi hornituak dauden herriak maitatu dituzte jendeak bizilekua antolatzeke. Horregatik, bizibide egokia eskaintzeaz gain ikastetxe eta osasun zerbitzuak eskura dituzten herriak, etxebizitzaren eskaintza egokia dutenak, eta generalean komunikazio erosoak dituzten herriak handitu egin dira azken urteotan. Alderantzizkoa gertatzen zaie baserrietik bizi diren herri ttikiei. Poliki-poliki, baina gelditu gabe, jendea hustutzen ari dira. Gazteenek bertze herrietara aldegitzen dute eta adinpiramideak gero eta altuagoa da (banaz bertzeko adina 40-42 urte).

SENPERE KASIK BIKOIZTU DA AZKEN BERROGEI URTEOTAN

Azkainek, Sarak eta Senperen nabarmen goiti egin dute berrogei urteotan. Senpere, konparazio batera, kasik 1.000 bizilagun irabazi ditu azken hamabi urteotan. Izan ere, etxebizitzak erdiesteko aukera ona egoteak eta, aldi berean, Lapurdiko kostaldeko hiri nagusietako zerbitzu eta lantokietara komunikazio erraxa izateak zerikusi zuzena du herriko jende gaztea bertan atxikitzeke, eta baita kanpotik etorritako familientzat gustagarri izateke ere, Senpereko aintzira inguruko etxe berrietan ikusten ahal den moduan. Egoera aski desberdina dute, ordea, inguruko bertze herri batzuetan.

MALERREKAKO HERRI TTIKIETATIK DONEZTEBE ALDERA

Kopuru absolutoei begiratzuz, 1991n baino 174 pertsona gehiago bizi da orain Malerreka eta Bertizaranan. 5.155 pertsona zeuden 1991n eta 5.329 daude orain. Orohar joera positiboa bada ere, urteak pasatu ahala herrien arteko desoreka nabarmentzen ari da beheko herrien mesedetan (batez ere Doneztebe) eta goiko herrien kaltetan.

BAZTANEN JOERA NEGATIBOA

Belateko tunelen irekitzeak ez dirudi momentuz Baztango demografiaren joera negatiboa iraultzeko inarririk izan duenik. Azken urteotan komunikazio-azpiegitura hobetu ez balitz, behar bada pentsa liteke joera negatiboa oraindik nabarmenagoa ez ote zen izanen. Bertzalde, adin-piramideari begiratzuz urtetik urtera zaharragoa da Baztandarren banaz-bertzeko adina. Fenomeno berria da atzerritik etorritako emigranteena (%2), batez ere Elizondon.


LEITZALDEAN, ARESO HAZI DA AZKEN ALDIAN

Arano, Areso, Goizueta eta Leitza artean 300 pertsona gutxiago bizi dira orain 1991n baino. Estatistikako datuen arabera, joera positiboa duen herri bakarra Areso da. Leitzak, herririk handiena izan arren, 342 biztanle galdu ditu azken 22 urteotan, eta Arano-Goizuetak ere joera negatiboa dute azken 40 urteotan (716 pertsona gutxiago bizi artean).

BORTZIRIETAN DOI-DOI EUSTEN ZAIO KOPURUARI

Berak, Igantzik eta Lesakak joera positiboa hartu dute azken 12 urteotan. Epe horretan berean, Arantzak galdu du jende gehien eta berriki arte Bortzirieta herri ikien zen Igantziren pare gelditu da azkenean. Denak batera hartuta, duela 43 urte baino 670 pertsona gehiago bizi da orain Bortzirieta.

POPULAZIOAREN GORA-BEHERAK UDALERRIZ UDALERRI



DIFERENTZIARIK AIPAGARRIENAK

HERRIA	1960	2003	DIFERENTZIA
Arano	360	141	-219 (-%60,83)
Eratsun	436	174	-262 (-%60,09)
Ezkurra	475	204	-271 (-%57,07)
Zugarramurdi	525	239	-286 (-%54,48)
Baztan	9.312	7.746	-1.566 (-%16,81)
Lesaka	2.294	2.692	+398 (+%17,35)
Bera	2.600	3.637	+1.037 (+%39,88)
Doneztebe	785	1.453	+668 (+%85,09)
Senpere	2.240	4.300	+2.060 (+%91,96)

Datuak:
INE eta Sara eta Senpereko
Herriko Etxeak

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitate: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gofii.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maletrreko Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Espainiak preso nauka

ESPETXEAN EGOTEKO ARRAZIOIAK

Epaitu gabe nago espetxean. "Badaezpadako" espetxeratzea da, beraz, ihes egin ez dezadan, ez dute kontuan hartu, ordea, neroni joan nintzaiola epaileari deitu ninduenean. Auzia sekretupean dago, beraz nire abokatuak ezin du nire defentsarik egin. Auzi berean 14 lagun atxilotu gintuzten. Horietatik hiru libre daude jada 30.000 euroko fidantza ordainduta. Gainerakook, ordea, espetxean jarraitzen dugu eta oraindik ez dakigu zergatik. Honen ondorioz, nire familia bizitza, ikasketak eta lan eremutik kanpo nago erabat.

IRAUPENA

Aste honetan sei hilabete egin ditut espetxean. Lehen hiru asteak Soto del Realen eta azken bost hilabeteak Aranjuezen. Behin behineko espetxealdia lau urtez luza daiteke epaileak eta fiskalak hala erabakitzen badute. Nire kideen artean bada oraintxe hiru urte betetzera doanik Garzon epailearen sumario horietako bat dela eta.

KOKAPENA

Soto del Real espetxea Lezotik 478 kilometrotara dago, Aranjuez, berriz, 539 kilometrotara. Nire senide-lagunek, berriz, astero, 1078 kilometro egin behar izaten dituzte ni ikustera etortzeko. Beraz, mesetaren txoko honetan nago, nire herritik eta errealitatetik guzti urrunduta. Deserriari gure ingurutik are gehiago isolatze-ko indarrean jartzen dituzten neurri guztiak gehitu behar zaizkio bizi dugun egoera ulertzeko. Ez duzue ahaztu behar, halaber, gure senide eta lagunek egin behar izaten duten ahalegina, hartzten duten arrisku-

a; eta xahutzen duten diruzta gu ikustera etortzeko. Gurekin batera gure senideak ere zigortzen dituzte: lan ordutegiak direla eta, amak eta anaietako batek lana utzi behar izaten dute ni ikustera etortzeko. Bestalde, gurasoen adina dela eta, hainbat osasun eragozpen sufritu behar izaten dute bidaia ahalik eta ziurtasun handienaz egin ahal izateko.

ESPETXEKO BIZI BALDINTZAK

Espetxeak, espetxe deenez, ezartzen dituen murrizketen zerrenda luzea da. Euskal preso politikoztat, berriz, are luzeagoa da. Eguneroko bizimoduan funtzionarioek are murriztagoa egiten dute gure eskubideen zerrenda. Dena den murrizketarik larrienak beste-rik ez ditut aipatuko. Ni nagoen espetxean hauek dira:

IKASKETAK: Ezin dut nire ikerketa eta ikasketekin jarraitu, besteak beste senideek ekartzen dizkidaten ia liburu guztiak bahitzen dizkidatelako (euska eta katalanez edo ingelesez daudelako). Bestalde ezin dut UPV-EHUn dau den tesi zuzendariarekin turetza harremanik izan indarrean jarri duten lege berriak ukatzen duelako.

ZIEGA: ziegan bakarrik nago. Eskutitz hau idaterakoan Imanol bakarrik zegoen ziegan, une honetan Iñaki Uriarekin batera dago. (gure espetxean 28 euskal presotatik 10 bakarrik gaude horrela). Gainerakoak binaka daude. Ziegaren neurriak hauek dira: 2,5m x 2,5m. legeak dioenez, ziegan bakarrik egoitea lehentasunez bete beharreko eskubidea da. Euria egiten duenean ziegan ura sartzen da. Lanerako mahaia eta aulkia arrunt desegokiak dira, beraz, irakurri edo idazteko bizkarra oker - oker eginda jarri be-

har izaten dut. Bizkarreko minez nabil azken asteotan eta egunero ariketa fisikoak egiten ditut bizkarra indartzeko. Argiteri ere oso da eskasa ilundutakoan irakurtzen edo idazten jarduteko. "Flexoa" erostea nolabaiteko konponbidea izan liteke baina horretarako espetxeko zuzendaritzaren baimen idatzia behar da, eta euskaldunoi, idatziz eskatu arren, ez digute baimenik ematen. Ziega egunero garbitzen dut, eta hala ere haize korronteek pasabideetan dagoen hautsaz betetzen da nire. Alergia arazoekin ibiltzen naizenez arreza bereziz zaindu behar izaten dut garbitasuna (bai eta elikadura, edo prestaketa fisikoa ere)

ELIKADURA: «dieta medika» deitzen duten otordua hartzen dut sendagilearen baimenaz (funtsean gatz gutxiago eta txerrikirik gabeko menua da). Bertako «demandaderoan» barazkiak erosi eta entsalada jaten dugu egunero euskaldunok (barazki gordinak jateko modua bakarra da hemen). Zerbitzu honek ordea, hutsune handiak ditu eros ditzakegun barazki batak tomateak, letxugak eta azenarioak direlako. Baratzuria edo tipula ere ez. Sukaldean lan egiten duten presoek euskaldunoi baratzuri edo tipularik ez emateko agindu zehatza dute.

BEHAR DITUGUN

GAUZAK: Bertako demandaderoan zerrendan zerbait produktu eskaintzen baizaizkigu ere zerrenda oso murrizta eta desegokia da. Beraz, etxekoei eskatu eta hilean bitan jasotzen dugun fardelean sartzen digute. Funtzionarioek goitik behera miatzen dituzte gure fardelek. Murrizketak eta bahiketak ohikoak dira eta irizpideak berriz, erabat arbitrarioak. Folio txuriak atzera botatzen dizkigute zen-

baitetan, bai eta euskarazko leloak dituzten elastikoak ere. Tarteka lapurretak ere gertatzen dira. Euskarazko argitalpenak sistematikoki bahitzen dizkigute hila-betez (edo luzarago). Ezin dugu kasete edo CDrik jaso (eduki ere ez). Espetxe honetan debekaturik daude.

KOMUNIKAZIOA

PRENTSA: BERRIAko harpideduna naizenez espetxera egunero iristen da nire izena daraman ale bat. Espetxeak, berriz, lau eguneko atzerapenez ematen digu, eta azken asteotan 8 eguneko atzerapena ere izaten dute.

IRRATIA: Irrati digitala izanez gero (espetxean debekaturik daude) Euskadi Irratia edo Radio Euskadi entzun daiteke (gazez, beñi ere, interferentzia gutxiago baitago). Horretarako, ordea, ziegako leiho ondoran jarri behar izaten dugu, eta askotan besoa luzatuz "uhinen ehiza" egin behar izaten dugu.

TELEBISTA: Egun ez dut telebistatik espetxeak miaketa batean kendu baitzidan nirea ez zela esanez (jada aske dagoen kide baten utzitakoa zen). Telebista nire izenean jartzeari uko egin diote eta 20 egun ez arratsaldeak ziegatik atera gabe zigortu naute. Telebista berria erosiko banu, berriz, teletestorik gabekoa emango lidakete, senide-lagunek bidaltzen dizkiguten mezuak irakur ez ditzadan. Esan beharrekoa da mezu horiek oso laburrak izateaz gain gaztelaraz idatzia izaten direla, eta oso lagungarriak gertatzen direla bisitatik gure senideak onik iritsi direla jakiteko.

GUTUNAK: astean bi gutun besterik ezin dut bidali. Gutun horiek gutunazalak irekian eman behar dizkiot funtzionarioari. Bidalitako gutunek gutxienez hilabete behar dute iristeko

(batzuk gehiago, batez ere balorazio politikoak edo gure "minak" adierazten badi-tugu, eta ez dira denak iris-ten...). Zuek bidaltzen diz- kiguzuen gutun asko, berriz, ez da iristen. Zaila da jakit- tea zenbat gutun doan zakarrontzira. Gure arteko giroa gaiztotzeko batzuri besteei baino galga estua- goa jartzten digute. Niri, esa- terako, azken lau astetan gutun bakar bat eman di- date eta jaso ditudan azken gutunak postalak edo an- tzeko gutun laburrak izan di- ra. Jasotzen ditugun gutun guztiak irekita datoz, gain- begiratu izanaren zigiluare- kin eta zenbaitetan funtzio- narioak berak gure aurrean zabaldu eta ondoren emat- en dizkigute.

TELEFONO DEIAK: Ezin dugu telefono deirik ja- so. Deiak egiteko, berriz, bi dei bakarrik ditugu baimen- duta (astean). Deiak zu- zendaritzak baimenduetako zenbakietara egin ditzakegu (etxekoei bakarrik, alegia) eta gehienez bost minutuko iraupena izan dezakete. Nor- malean dei luzeagoak egi- ten ditugu, preso sozialei, orde, funtzionarioak ez die deia mozten, euskaldunoi,

berriz, funtzionario zenbait zazpi-zortzi minutura etor- tzen zaizkigu. Deiak egi- teko ordutegia ere mugatua da (11:00-13:00/ 17:00- 19:00), beraz, gure senide- ei askotan lanorduetan dei egin behar izaten diegu.

BISITAK: Espetxe honetan euskal presoak aste- burutan bisitak egin ditzake- gu. Aukera hau borrokaldi baten ondoren irabazita- koa da, aurretik astean ze- har egin behar izaten bai- kenituen. Bisitaldiek 40 mi- nutu irauten dute, kristal lo- di bat erdian dela eta inter- fonoa erabiliz egiten dira. Euskal preso bakoitzari zein lokutorio dagokion esaten digute, elkarrizketa graba- tzeko. Espetxean darama- tzadan sei hilabeteetatik ia lau eman ditut lagunen bi- sitak baimendu zain. Beraz, bitartean, senideek astero etorri behar izan dute. La- gunen bisitak baimentzeko bakoitzaren izen-deiturak eta NAN zenbakia aurkez- tu behar ditut. Hiru hilabe- teren ondoren etortzen da erantzuna. Lagun batzuri bi- sita ukatu diete baina ez di- date arrazoirik eman.

AURREIZ AURREKO BISITAK: Ordu eta erdi irau-

ten dute eta hilean bi egin ditzakegu: familiarra (gu- raso-senideekin) eta intimoa (emazte edo bikotearekin). Bada hirugarren bisita mo- ta bat, "elkarbizitzakoak" dei- tzen dituztenak (seme-ala- bekin edo lagun minekin egin daitezke) baina euskaldu- noi ez digute eskubide hori onartzen. Bisita hauetan euskaldunok elkarrekin aha- lik eta gutxien topo egin de- zagun eta gure senideek au- tobusak antolatuzko zail- tasunak izan ditzaten bisita orduak sakabanatu egiten ditu. Horren eraginez, seni- de-lagunek nor bere au- toa hartuta etorri behar izat- en du, furgoneta edo auto- busak erabiltzea ez baita bi- deragarria gertatzen.

EUSKAL PRESO PO- LITIKOON KOLEKTIBOIA

Oraintxe 28 lagun gara espetxe honetan. Espetxe- ko zuzendaritzak ahalegin guztiak egiten ditu berez des- terruan gauden presoak are gehiago sakabanatzeko es- petxean bertan. Egun bost modulutan banatuta gaude, eta espetxeko zuzendari- tzak adierazi zaigu "bazte- rrak nahasten" hasten ba- gara gainerako modulutan sakabanatuko gaituela. Ez

dira hilabete asko joan sei kide isolamendu ziegetan sartu zituztenetik. Beraz, espetxearen helburua eus- kal presoek elkar ez ikustea edo elkarren berri ez izatea da. Desterruaren zigorrari, beraz, gure erkide eta bur- kideekiko isolamendua eras- ten zaio (eta horri gurasoe- kin komunikatzeko zailtasu- nak, telefonoz deitzeoak, gutunketarenak... gehituta berehala ikusiko duzu zein den espetxe politikaren be- netako zioa... mendekua).

Euskal presoak, beraz, gure burua sasi-bideetatik komunikatzera behartuta gaude. Gure eztabaidak (po- litikoak nahiz espetxeak egi- ten digun jazarpenari bu- ruzkoak) elkarrekin ez- tabaidatzen ditugu eta el- karrekin erabakitzen dugu zer egin, beti ere, gure ar- teko adostasuna bilatuz eta zainduz. Espetxeari eskae- raren bat egiten diogunean edo gure burua protestatzera behartuta ikusten dugune- an ere, gure ekintzaren zioa kolektibo gisa azaltzen dio- gu espetxeari (ondoren etor- tzen dira zigorrak). Espe- txeren batean kideren bat ji- poitzen badute, presoren ba- ten senide-lagunek bisitan

istripuren bat baldin badu- te, estradizioak eta entre- gak egiten dituztenean... ere elkartasun eta protesta ekin- tzak egiten ditugu.

Eta, bistan denez, gure protestarik gogorrenak gai- nerako Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin batera burutzen ditugu, gu- re Herriak behar duen etor- kizun libre eta bakezkoaren alde aldarri egiteko. Horren aldeko lanak eta borrokak ekarri baikaitu hona, eta ho- ri erdiestea ezinbestekoa baita espetxeak hustu eta behin behingoz gure herriak bizi duena gainditzeko.

Tira, luzetxo jardun naizelakoan nago, baina, la- burrago ere ez da erraza azaltzea hemen zer bizi du- gun. Sei hilabete barru ida- tziko dizuet hurrengoa, eta espetxe bizitzak tarte ho- rretan izan dituen aldaketen berri emango dizuet. Bitar- tean gauza bakarra eskatu- ko dizuet, zuen ahalaren ara- bera espetxetan bizi dugun bortizkeria politikoa behin betiko gaindi dadin saiatzea, gutxienez bizi dugunaren berri emanez ingurukoei. Hortik aurrerako zuen esku.

Adio.
Imanol Esnaola.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Mazzoa
Zuhar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



Helbide berria:

Zalain auzoan,
Aceralia fabrikaren parean
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333
BERA

DROGUERIA MOLINERO

PINTURAK
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guziak

2.000 kolore
baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan
zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Merkataritza

Neguko merkealdietarako aholkuak eman ditu Industria eta Komertzio Zuzendaritzak

Urtarrilaren 7an hasi eta martxoaren 6a bitarte iraunen dute Nafarroan

ttipi-ttapa

Urtarrilaren 7an hasi ziren neguko merkealdia eta martxoaren 6a bitarte iraunen dute Nafarroan. Denboraldi honetan, merkealdien guttieneko iraupena astebetekoa izanen da eta gehienez bi hilabetekoa. Dendariak aukeratzeko dituen merkealdi-egunak bistan egon beharoko dute, kanpotik eta denda itxia dagoenean ere ikusteko moduan.

Merkealdietan, lehendik eskaini diren produktuak prezio merkeagoan saltzen dira. Hau da, merketu diren produktuak lehendik ere guttienez hilabete batez eskaini behar izan ditu dendak prezio arruntetan. Normalean baino prezio merkeagoan saltzeko produktuak espreski hartzea legehauste larria da.

AHOLKUAK

Nafarroako Gobernuko Industria eta Komertzio Zuzendaritza Nagusiak zenbait ahol-



ARGAZKIA: JOXEMANUEL IRIGOIEN

Bertziko Merkataritza Elkartearen Eguberrietako zozketa egin zuten urtarrilaren 8an. 104.357 zenbakia suertatu zen saritua, Lesakako Izarra okindegian emana. Irabazle suertatu den Iñaki San Sebastian beratarrak urtarrilaren 22a baino lehen arratsalde batez mila euroko erosketak egiteko eskubidea izanen du elkarteko dendetan. Argazkian, Pilar Lizardi Merkatarien elkarteko lehendakari ordea, Lourdes Leiza lehendakaria eta Carlos Ostiz bokala ageri dira, zozketa egin zen unean.

ku eman ditu merkealdien inguruan:

- Beharrezkoa dena bakarrik erosi: Aitzinetik zerrenda bat egin eta gastatzeko gehieneko diru kopurua zehaztea komeni da.

- Presarik gabe erosi: Ez utzi publizitatea edo presak eragitea.

- Kalidade berdina, prezio tikiagoa: Merkealdietan kalidade berdina eskaini behar da prezio tikiagoan. Denbo-

raldi horretan salgai egon diren produktuak izan behar dira, ez hondatutakoak edo bereziki merkealdi denboraldirako hartutakoak. Beraz, produktuen egoera ona eta etiketatu ego-

kia eskatu behar da.

- Txartelak: Merkealdietan urte osoan eskaintzen dituen zerbitzu berdinak eskaini behar ditu komertzioak. Dendak urte osoan txartelak onartzen baditu, merkealdietan ere onartu beharoko ditu.

- Eskubide berdinak: Txartelen adibidea kontsumitzaileen bertze eskubideetara aplikagarria da. Dendariak fakturak egin beharoko ditu, salmenta agiriak eman eta erreklamazio-orria eskuragarri izanen du. Garantien baldintzak mantendu behar dira.

- Merkealdiak bakarrik: Merkealdi garaietan, komertzioak ezin izanen du aldi berean bertzelako eskaintza edo deskontu berezirik egin.

- Itzulketak: Ordaindu aitzinetik, itzulketak onartzen dituzten galde-tu. Dendaria ez dago ongi dagoen produktua aldatzera edo dirua itzultzera behartua. Baiezkoa bada, faktura edo erosketicketa eskatu.

Alzuri • Sukalde tresneria eta opariak • Landare eta loreak

Tel: 948 630 370 BERA

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK

Bera - Tel: 948 638 735 - 407 406 781

TEL K
K MISET K
ISE K
TXISKEI X

N HI UZUNK U U, NEU I ET (SEINU) ERIN

Ezt r z h T l- F X 3 15 21

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
saqardotegia jatetxea saqardotegia

ZJ

Zalain
jatetxea

Tel: 948 638 735 Bera - Nafarroa

BERA

Matxaingo ur-bilketa instalazioak berrituko dira mozketak saihesteko

Ibardingo ur zikinen araztegia ere moldatuko da

Amaia eta Ainhoa

Euri aunitz egiten duenean edo idorte garaietan ur mozketak arazoak izaten dira Beran. Matxainetik heldu da herrira ur gehiena eta ur-bilketa honen instalazioa berritzeak Berako ur hornidura arazoak hobetuko ditu, eurite garaian batez ere. Garai hauetan Matxain erreka maila aunitz goitzen da eta instalazioak ez du ur guzti hori hartzeko kapazidaderik. Ur-bilketa etxola ere urarekin inguratuta gelditzen da eta honek hobekuntzak egitea eskatzen du. Matxaingo erreforma honek 33.000 euroko kostua izango du eta Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean dago. Dagoeneko proiektua idatzia dago eta laister hasiko dira obra egiten. Hala eta guztiz ere, arazo haundienak udan ematen dira, lehorre garaietan. Gaur egun, Matxaingo ur-bilketa, Yesola eta Zalaingokoekin batera, ez dira nahikoak herriko beharrak hasetzeko. Dirudienaz, ur-bilketako erreforma eta ur zikinen araztegiekin egoera hobetuko da baina hala ere araztegi nagusiak, Kaxernakoak, hobekuntza haundiak behar ditu. Guzti honetaz gain, aipatzekoa da udalak saneamendu sare orokorra berritzeko asmoa daukala, zaharkitua gelditu delako eta ihesak dituelako.



ARGAZKIA: AITOR

David Seco nagusitu da aurtan ere Berako ziklo-kross proban.

Ibardingo ur zikinen araztegia berrituko da

Nilsa enpresak Bera eta Baztanen bi saneamendu proiektu aurrera eramango ditu. Biek aldi berean egiten dira eta daukaten aurrekontua 531.562 eurokoa da. Beran, zehazki, Ibar-

dingo ur zikinen araztegi edo depuradoraren lehenengo fasea berrituko da. Urari grasa kentzeko helburuarekin tanke bat jarriko da aurretik euri-uraren sarrera mugatuko duen gainezkabide batekin.

Toki Administrazioko kontseilariaren bisita

Urtarrilaren 8an Alberto Catalán Higuera, Toki Administrazioko kontseilari eta Gobernuko ordezkaria, Beran egon zen udal berriko kideak ezagutu eta udalak egin nahi dituen

proiektuak ezagutzeko. Udalak 2005-2007 hirurteko azpiegitura planaren barnean Herriko Etxearen obra sartzea hartu du helburu nagusitzat. Udalak azpiegitura lokaleko planean sartu nahi dituen proiektu nagusienak saneamendu-sareak, urak, hirugarren adinekoentzako erresidentzia eta Herriko Etxea moldatzea izango dira. Catalán ere Ibardingo gaina ezagutzera eraman zuten eta Ibardingo komertzianteen proiektuak azaldu zizkioten, bertzeak bertze, gasolindegia eta aparkalekuarena.

FLASH

Herriko Arkupeak elkartekoena besta

Otsailaren 8an egiten dute Berako Arkupeko bazkideek aurtengo jubilatuen besta. 12:00etan urtean hil diren lagunen alde meza izanen da eta 13:30etan Zalain jatetxean bazkaria egiten dute. Ansoneatik autobusa aterako da 13:15tan jatetxera hurbiltzeko. Izen ematea ilbeltzaren 20tik 30era egin behar da, 21 euro ordainduz.

N-121-A

Urriaren martxan jarri zenetik plataformak eraman duen ibilbidearen balantzea egiteko bilkura burutu zen urtarrilaren 14ean Kultur Etxean. Nafarroako Gobernuak argitaratutako txosten ofizialeko hainbat datu aipatu ziren, hala nola, 1993-2002 urteen artean Iruña-Endarlatsa bitartean gertatutako istripuetan 400 zauritu eta 100 hildako izan direla. Nafarroako errepide sarean hilkortasun tasa haundiena daukan errepidea N-121-A da. Istripuen kontzentrazio altuena Etxalar eta Endarlatsa artean gertatzen da. Auzolanek urtarrilaren 23rako hitzordua lortu du Nafarroako Gobernuarekin. Auzolanek errepidearen erabiltzaileen salaketak nahiz eskaerak azalduko ditu, errepidea moldatzeko berehalako konpromezua exigituz.

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

BAR Botxo OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

LESAKA

Eguberrietako ohiturak eta ospakizunak zintzo betez ekin diogu urte berriari

Bortzirietako bertso txapelketan Manolo Arozena, Etxabe eta Egoitz Telletxea txapeldun

Aitor AROTZENA

Ohiko Olentzero eta jaiotza lehiaketekin hasi ziren Eguberriak, eguraldi kaxkarrarekin. Ondotik, azkeneko sei urteotan egun hauetan jokatu den Bortzirietako taldekako bertso lehiaketa jokatu zen. Urte zahar egunean egin ziren kanporaketak eta finala urtarrilaren 3an, Lindurren bordan egindako bazkalondoan. Manolo Arozena, Etxabe eta Egoitz Telletxea lesakarak osatutako hirukotea izan zen garaile, finalean Iñigo Olaetxea, Julen Zelaieta eta Ekhiñe Etxepetelekuri nagusituta. Bertze lau hirukote ere aritu direla kontuan hartuz, hemezortzi bertsolari plazara-tu ditu txapelketa honek. Jaialdi haundiak ere utzi dizkigu Eguberriak Zambran: Bortzirietako dantza taldeek eskainitako emanaldia eta Fermín Muguruzak eta Kontrabandak emandako kontzertua. Biak ere indartsu eta ikusgarriak!

Loteriak aurten herrian deus utzi ez duela kontuan hartuz, preso eta iheslarien aldeko saskiaren zozketan ateratako zenbakia begiratu badaezpada: 305.



ARGAZKIA: AITOR

Lehiaketa borobiltzeko emozioa falta izan zitzaizen Batzoki Elkarteak antolatutako lehen eta bigarren mailako paleta goma txapelketetako finalei. Urtarrilaren 3an jokatu ziren eta lehen mailan, Susperregi hondarribiarrak eta Pernaute narbartearrak (beheitian, ezkerrean) 30-15 irabazi zieten Doneztebeko Luismi Apezetxea eta Patxiku Ganboari. Bigarren mailako finalak oraindik kolore guttiago izan zuen eta Santesteban irundarrak eta Imanol Telletxea lesakarrak (beheitian, eskuinean) 30-9 irabazi zieten Otegi anaiei. Hirugarren posturako lehian, lehen mailan Larralde eta Zumetak 30-20 irabazi zieten Txoperena eta Atorrari eta bigarren mailan Oiartzabal eta Txoperenak 30-20 irabazi zieten Alustiza eta Be-reauri. Orain Nafarroako txapelketan jokatzeko ari dira Lesakako lehen mailako txapelketatik ateratako lau bikote eta bigarren mailako bi. Herrian bertan eta Donezteben jokatu dira zenbait partida.

BOBEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ANJA
Janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETKEA
Zafra
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ZINEZERA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Joxe Mari Danboriena eta Jose Jabier Zubieta txapeldun Larraburuko mus txapelketan

Asun Elizalde eta Birjina Arburuak irabazi zuten partxis txapelketa

Joseba eta Nerea

Aitzineko Ttipi-Ttipan aipatu genizuen bezala, urtea hasitzearekin batera akautu zituzten Larraburua zahar-etxean mus eta partxis txapelketak. Lehenbizikoan 16 bikote aritu ziren eta bigarrenen berriz 8. Zazpi astez luzatu zen lehiaketa eta errege egunean egin zuten sari-banaketa. Bertan, zegozkien txapel eta trofeoak hartu zituzten irabazle guzkiek. Museko txapeldunak Joxe Mari Danboriena eta Jose Javier Zubieta izan ziren, Teodoro Perugorria eta Jose Luis Iparragirrenen aitzinetik. Hirugarrenak Teodoro Iribarren eta Santiago Mitxeltoarena eta laugarren tokian Leon Goienetxe eta Prudencio Arburua. Partxisean berriz, Asun Elizalde eta Birjina Arburuak irabazi zuten. Bigarren Santiago Olasagasti eta Javier Indaburu gelditu ziren eta hirugarrenak Juliana Elizalde eta Maria Esther



ARGAZKIA: JOSEBA

Mus eta partxis txapelketetako finalistak, sariak jaso ondotik.

Bereau. Urtarrilaren 10ean egin zuten bazkaria parte hartzaile guzietan dagoeneko martxan dute magra-txapelketa.

Ludotekaren irekiera

Joan den ortziralean ireki zen ofizialki Kultur Etxeko ludoteka. Arratsaldeko bortzetan aurkezpen-ekitaldia egin zen eta ludotekak es-

kaintzen duena erakutsi zuen Jabier Iriartek bildu zen jende andanaren aitzinean. Bertzeak bertze, adin guzietako haurrei zuzendutako jolasen, multimedia denborapasen, etab-en berri eman zuten, ondoko egunetan joan nahi duten haur guzietan zerbait gehiago jakin zezaten. Orain, betiko ordutegiaren barnean, ludoteka irekia da-

go Kultur Etxeko lehen-dabiziko solairuan.

1.427 euroko dirulaguntza Behar Bidasoarentzat

Udalak 1.427 euroko dirulaguntza ematea onartu du Behar Bidaso Gobernu Kanpoko Erakundearentzat. Paraguayan karrikako haurrak laguntzeko haurtzaindegi-eskola-

tailerra martxan paratze-ko izanen da diru hori.

Patinaje ikastaroa

Urtarrilaren 10ean hasi zuten herriko haurrek patinaje ikastaroa. Leire Olagarai eta Miren Olaetxea irakasleekin, 25 haur inguru hasi ziren ikastaro honetan bertze urte batez. Larunbatetan biltzen dira bi txandatan, 11:00etatik 12:00etara ttikienak eta 12:00etatik 13:00etara nagusia-goak. Erran digutenez, ttikienak nola patinatu ikasten arituko dira eta zaharxeagoak berriz, patinen gaineko hockeyari eskainiko diote aurtengo klastetako denborarik gehiena, horren inguruko ariketa, josteta eta partiduak eginez. 4 hilabetez luzatuko da ikastaroa eta oraindik norbaitek izena eman nahiko balu, aukera badiuela aipatu digute irakasleek. Dударik ez dugu denak ere ederki pasatuko dutela!

BELARRA
OSTATUA
JATETXEA
Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANZI, TELLETXEA ZUZAYA
Gasoila etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako altzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

HERRIKO
OSTATUA - JATETXEA
IMANZI, TELLETXEA ZUZAYA

IGANTZI

Herria ezagutuz

Hameka alegazio egin zaizkio N-121-A errepide berriari

Bibide Ostatuak atekak itxi ditu berrogei urteren ondotik

Oskar TXOPERENA

Ilbeltzaren lehenbiziko egunetan bukatu zen N-121-A errepidean egin behar diren lanen proiektuari alegazioak paratzeko epea. Inguruko lurren jabeeekin eta berrizaundarrekin bildu eta gaia eztabaidatu ondotik 11 alegazio aurkeztu zituen Udalak epearen barnean. Aldaketa eskaera gehienak mendira edo alorretara egin beharreko sarrerei buruzkoak dira, baina badira bertze gisakoak ere: Berrizaungo ur sareari dagozkionak, errepidea etxeetatik hurbil pasatzen denean soinuak kentzeko paretan eskaerak, lurra ahalik eta guttinen ondatzeko zenbait aldaketa, etabar.

Bibide Ostatu

2003ko azken egunetan itxi egin zuten Goietxeako beheko solairuan zegoen Bibide taberna edo ostatua. 1963an euren osabak egin zuen ostatua ireki-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Ttipi-ttaparen azken alean erran genuen emakumezkoak palaz gogoz hasiak zirela eta Belate Elkarrekin antolatutako txapelketan jokatzeko ari zirela. Ilbeltzaren 10ean Leitzan jokatu ziren finalak eta bertara hurbiltzea erabaki genuenok ez ginen ez joan izanaz batere penatu! Izan ere, hagitz partida ederrak ikusteko aukera izan genuen. Igantziko hiru bikotek jokatu zuten -argazkian daudenak- Etxarri-Aranatz, Auritz, Aurizberri, Erratzu eta Leitzakoekin batera. Leire eta Beak erratzuarren aurka jokatuak partida zoragarriaren ondotik txapela herrira ekartzea lortu zuten. Olaia eta Anek, berriz, bigarren saria irabazi zuten euren mailan, eta Nerea eta Itziar, azkenik, laugarrenak izan ziren maila berean. Hogei lagunekoko igantziar taldea elkartu zen Leitzako pilotalekuan. Ez dago gaizki hasera izateko.

tzeko eskaera, lehendik bertan zegoen dendaren ondoan: « Jose Antoni Iñargak ostatu paratzeko baimena eskatzen du, mostradorean ardoa eta kopak saldu ahal izateko, lehendik dagoen ultramarino dendaren leku berean ».

Hemendik aitzinera, bi lokalekin bat eginda, denda bertzerik ez dute irekiko Goietxean. Kontua da ezari-ezarian herria ostaturik gabe gelditzen ari zaigula. Urte mordoak joan da Tabernea itxi zutenetik, baina geroztik lau ostatu itxi dira herrian: Tabernea, Allinea, Apetxea eta orain Bibide. Ostatu zerbizua ere bada neurri handi batean eta alde horretatik ez da berri ona herriarentzat.

Egunero irekitzen duten bi ostatu gelditzen dira orain: Merkatenea eta Txipitenea, Biltoki eta Baratzondo Elkarrekin kontatu gabe. Herriko Etxeko ostatua asteondarretan irekitzen da.

Arrunea

Orain dela urte mordoak desagertutako etxe baten gorabeherekin beteko dugu kontu zaharren oraingo zutabe hau. Arrunea zen bere izena. Ez da idatzi zaharretan informazio aunitik ageri etxe honi buruz, baina bere lekuan behar bezala kokatzeko haina bai. 1624koa da artxibotik dagoen bere erreferentziarik zaharrena, bataio liburukoa hain zuzen: "Catalina de Arroenea"rena. Bistakoa denez, hau izenaren lehen aldaera zen, baina bertze zenbait ere ezagutu zituen: Arrurena, Arruenea eta Arruenea. Hainbertzetan aipatzen dugun 1866ko katastroak ematen dizkigu etxe honen xehetasun gehienak, kokapena, errate baterako: "por izquierda con huerta de Barberenea" (Barbentiki). Bere baratzearen mugak, berriz: "por oriente huerta de Martinlaben, por poniente camino a la Piedad, por norte labrante de Gicocheberria". Hagitz etxe ttikia zen, 43 metro koadroko azalera bertzerik ez zuen eta, eta mugei erreparatu gero ez zuen orain Martinlabengo baratzeko pikua dagoen lekutik hagitz urrun ibili behar. Aunztan ageri da Yanci abizena XIX. mendea garatzea lortu ez zuen etxe honi lotuta.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hiritzintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

ARANTZA

Iñauteak otsailaren 5etik 8ra izanen dira

Berako Gure Txokoa elkarteak antolatu ipuin lehiaketan hiru gaztetxo sarituak izan dira

Nerea ALTZURI

Mozorroa prestatzeko tenorea ailegatu zaiugu. Ihafterien sasoiaren bete-betean gauden honetan, inguruko moztan saltsak aintzinetik, herrikoak gero eta ondotik, bertze hainbat herrietako iñaute zorameanean sartzeko aukera eskasiarik ez dugu izanen.

Iñauteak otsailaren bortzetik zortzira bitartean iraganen dira herriari. Lau egunez, herriko pertsonaia den "mozorroa" protagonista izanen da aurten ere. Herriko gazte batzuk biltzen hasiak dira guzia prestatzeko eta oraindik egitarauari buruzko xehetasunik ematerik ez badugu ere, hurrengo alean dena zehatz-mehatz kontatuko dizuegu.

Bitartean, otsaileko hasierako egun horien esperuan geldituko gara.

Ipuin sarituak

Berako Gure Txokoa elkarteak antolaturiko Bortzirietako Haur eta Gaztetxoentzako Ipuin Lehiaketan, Itziar Mitxelena, Unai Iparragirre eta Ander Almandoz sarituak izan ziren. DBH lehenengo eta bigarren mailako artean, Itziarrek lehenengo saria eraman zuen "Nire Egunerokoa" lanarekin; bigarren saria, Unai eginiko lanak eraman zuen, "Azken finean denok gara berdinak" ipuinak; eta Ander, "Shimaroren arazoa" izeneko ipuina idatzita hirugarren saritua izan zen. Zorionak denei eta bereziki saritutako he-



ARTXIBOKOAK

Orain dela bi urte joan ziren lagunak ditugu argazkian. Urteik urtera, maila honetako ikasleek oporraldietako lekuak txandakatzen dituzte: urte batean elurretan eta hurrengoan Bartzelonan.


rritarrei!

Joan den abenduaren 19an izan zen sari banaketa Berako kultur etxeko erakusketa gela. Gustora pasatu omen zuten arratsaldea, ipuin ezberdinak entzuten.

Elurretan oporraldia

Eskolako hamasei lagunek elurretan aio erranen diote neguari. Nafarroako kirol eta Gaztedi Institutuak eta Izaiba eta Otsagiko Herriko Etxeek antolatu Asite Zuriaren XX. edizioaren barne, heldu den martxoaren 29tik hasi eta apirilaren 2ra bitar-

teko astea egokitu zaie elurretan iragateko. Joan den astean abiatutako ikasturte honetako eskolarteko eski kanpainaren barrenean, aurten hirugarren zikloko eta DBHko zazpina ikasle eta tutorek nahiz Bortzirietako hirugarren zikloko ikasleak elkarrekin joanen dira Izaibako eskiatzeko pista-tara kirol hau praktikatzen. Bezperan, martxoaren 28an, igande arratsaldean joanen dira Izaibara. Astebeteko egonaldia etxe partikularretan edo aterpetetan egingen dute. Goizetan txandaka eskiatzen ibiliko dira, eta arra-



tsaldetan berriz, herrikirol saioa, natura interpretazio zentrorra bisita eta diplomen banaketaren aitzakian bestatxo bat egingen dituzte. Elurrik ez bada izaten, inguruko herrietara bisitaldiak antolatuak izanen dira. Bertze urteetako oroitzapen onak gordetzen dituzte parte hartutako lagunek, batez ere etxe partikularretako egonaldiak hagitx goxoak izan zirelako.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 948 133328 Faxes: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



ALBERGIA JATETXEA

© 948 634179
ARANTZA



DONEZTEBE

La Union Kasinoak urteko batzarra egingen du igandean

Zuzendaritza batzordea berrituko da urtarrilaren 25eko bileran

ttipi-ttapa

Normalki Errege egunez egiten baldin badute ere, aurten igandean, urtarrilaren 25ean, 11:30etan lehen deialdian eta 12:00etan bigarren, egingen dute urteko batzarra La Union Kasinoko bazkideek. Joan den urteko aktaren irakurketa eta onarpena, joan den urteko kontuak eta gestioa, bazkideen altak eta bajak eta eskari-galderen txanda izanen dira gai-ordenean. Akitzeko, garrantzitsuena utzi dute, zuzendaritza batzordearen berritzea. Gaur egun batzordean daudenek utzi egingen dute, arrazoi ezberdinegatik eta nahitaez aldaketa egin beharko da aurten. Avelino Mitxeo, Migeltxo Eraso, Imanol Telletxea eta bertze juntakideek bigarren agintaldia beteko dute, lau urte. Hasieran bi urterako sartu ziren batzordean, baina hura akitu zenean ez zegoen



ARGAZKIA: DIARIO VASCO

Koteto Ezkurra eta Patxi Olazar herriko osaba-ilobek ezin izan dute binakako erremonete txapelketa irabazi. Urtarrilaren 10ean Hernaniko Galarretan jokatzen zen finala ikustera eta animoak ematera hainbat doneztebar joan ziren, baina ezin izan zuten herritarren garaipenik ikusi. Zeberio II eta Auzmendi gehiago izan ziren. Koteto ez dago sasoi punturik onenean, baina saiatu zen. Patxi Olazarek, 20 urterekin eta debutatu zuela urtea bete gabe, lehen finala haundia zuen. Huts batzuk egin zituen baina etorkizun haundia due-la erakutsi zuen zenbait tantu bikain eginez.

bertze inor sartzeko prest. Gainera, bazkideen ustez ongi ari ziren lanean eta proiektuarekin aitzinera segitza erabaki zuten bigarren agintaldian ere.

Lau urte hauetan ha-

zi egin da elkarte, bai instalazioetan, bai azpiegituretan, baita funtzionamenduan ere. Antolaketari dagokionez, seguruena ez zen inoiz orain bezain ongi ibili.

Joan den urtean, le-

hen solairuko leiho, pertsiana eta ate guztiak moldatu dira, behar haundia baitzen. Horretaz gain, garbiketa lanak egin dira, bai etxe barnean, baita atarian eta lorategian ere.

FLASH

Erreka Eguberrietako saskia

Erreka kirol elkartearen Eguberrietako saskiaren zenbaki saritua honako hau da: 2207. Saskia Javier Ariztegi doneztebarrak eskuratu du.

Repsolen lanak direla eta EAJren arrenkura

Azkeneko udal batzurrean, Repsol-Butano enpresak egindako lanen inguruan neurriak hartu behar ote diren galde egin zuen Alfredo Zugarramurdik, EAJ-PNVren udal taldearen izenean. Bere ustez, lanak hasiera batean udal lizentziarik gabe egin ziren eta gero, aurkeztutako proiektu teknikoari egokitu gabe. Hori arau hauste urbanistikoa da, EAJren ustez. Alkateak erantzun zuen, lanak hasterakoan Inatolazoki etorbidean metro bateko diametroa zuen tuboa topatu zutela erranez. Obrak aurreikusita zeuden bezala egitekotan tuboa xehetuko zela kontuan hartuz, Elizagibelako parketik egitea erabaki zen. Beraz, udal azpiegituretan ahalik eta kalte guttien eragiteko moduan aldatu zen trazatua.

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA
MOSKITERAK SALMENTA
PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

PIKABEA
 harategia • urdaitegia
 janari prestatuak
 Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

MALERREKA-SUNBILLA

Iturengo Herriko Etxeak su hartu zuen Errege Bezperan

Aurtizko Ostatua enkantean atera du Udalak

Iban ISASI

Errege bezperaren arratsalde-ilunabarrean, Herriko Etxeak ia-ia su hartu zuen, Herriko Ostatua arratsean eginen zen afarirako berotzeko suaren tiroa normalean baino gehiago ireki ziotenean. Antza denez tiroa kedarrez bete zegoen eta su haunditzean hauek su hartu zuten. Azkar batean hurbildu zen jendea su itzaltzera, eta hauekin batera Mugairitik norbaitek deituta suhiltzaileak. Suaren aurrean herriko jendeak izan zuen erantzun azkarrari esker ez zuen surik hartu udaletxeak.

Bertzalde, Aurtizko Ostatua enkantean aterako da. Proposamenak hilaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira.



ARGAZKIA: ANTONIO ESPELOSIN

Iñaki Perurena harrijasotzaileak, Iñaki Otxandorena pilotariak eta Patxi Vila txirrindulariak, Aitor Arozena kazetariak gidatutako mahainguru interesgarria eskaini zuten urtarrilaren 2an Sunbillako Ulibeltzak elkartearen. Elkartea jendez gainezka ageri zen eta gustora egon ziren ordu terdi iraun zuen solasaldian. Eskertzekoa da hiru kirolariek galderei erantzuteko orduan izan zuten zintzotasuna, inolako trabarik gabe erantzun baitzieten mahaitik eta jende artetik luzatutako galderei. Iñaki Perurenak berari gertatutako istorio eta pasadizoak kontatu zituen eta jendea barrez paratu zuen behin baino gehiagotan. Ondotik afaria antolatua zen eta hogeita bortz lagun gelditu ziren giro ederrean afaltzera.

FLASH

Urteko tasa eta prezioak zehaztu dituzte Zubietan

Zubietako Udalak urte honetarako zenbait tasa eta prezio onartu ditu. Etxerako urak, 250 metro kubiko arteko kontsumoa, 19 euroko kuota finkoa izanen du (gehi BEZa). Hortik goiti, kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko 0,11 euro gehiago ordainduko da. Auzolana ez egitearen truke ordaintzen den diru kopurua mantendu eginen da, auzolan bakoitzeko 31,25 euro. Zubietako errotako ekomuseoaren sarrera prezioak ere finkatu dira: helduak, 3 euro. Eskola adineko neska-mutikoak, ikasleak eta pentsiodunak, 1,50 euro. 15 lagun baino gehiagoko taldeak, pertsonako 1,50 euro. 8 urte bitarteko haurrak, taldean ez doazenak, doan.

Ibintzaren zozketa

Irabazle suertatu diren zenbakiak: 1go saria, zare handi bat, 1937. Gau berean agertu zen irabazlea, Zubildeko-bordako Lourdes ameztiarra. 2. Saria, DVD batena, 1521 (Rosa Ariztegi). eta 3.a 2457 zenbakiari egokitu zitzaion, bi afare Altxunea Erregetegian (Miriam Altzuri).

BERTIZ

Ostatu hartzeko 83 leku gehiago sortu ziren joan den urteko azken lau hilabetetan

Aterpe bat, bi apartamendu, bi ostatu eta lau landetxe ireki ziren eskualdean

ttipi-ttapa

Joan den urteko hirugarren lauhilabetekoan turismo ostataua ematen duten hogeita hamare establezimendu berri irekitzeko baimena eman zuen Nafarroako Gobernuak, horietako aunitz Bertizko Partzuergoak kudeatzen duen inguru honetan.

Honela, Zubietan Olsenea aterpea ireki zuten, 24 lagunendako lekuarekin.

Apartamenduei dagokionez, Legasan Eguzki Alde ireki zuten, 8 lagunendako lekua-ekin eta Etxalarren Iriberri, 6 lagunendako lekuarekin.

Hotel edo hostalei dagokionez, Elbeteko Posadan hamalau lagunendako ostatu eskaintzen dute beraian zaz-



ARTXIBOKOA

Zubietako Olsenea aterpeak hogeita lau lagunendako ostatu eskaintzen du. Legasan eta Etxalarren ireki diren bi apartamenduetan hamalau lagunendako lekua dute, Elbete eta Lizuniagako hostaletan hogeita bi lagunendako eta Lesakan, Etxalarren eta Erratzun irekitako landetxeetan hogeita hiru lagun gehiagok ostatu hartu ahal izanen dute.

pi logeletan eta Berako Lizuniaga hostalean zortzi lagunendako lekua

dute lau logeletan. Landetxeei dagokionez, azkenik, lau etxe

berri ireki dira Bertizko Partzuergoaren eremuan. Lesakan, lehen-

dik ere landetxea eskaintzen zuen Alanzarren lau lagun gehiagorentzako lekua izanen dute. Etxalarko Eguzkiagerreko Bordan zortzi lagunendako lekua eskainiko da, Etxalarko Aldabeko Bordan lau lagunendako eta Erratzuko Indako Bordan zazpi lagunendako.

Beraz, inguru honetara turismo egiteko in-terentzioarekin edo, ber-terik gabe, ostatu hartzeko asmoz datozenek 83 leku gehiago izanen dituzte aurten Bertizen.

Partzuergoako administraria

Bertiz Partzuergo Turistikoa administraria hautatuko du. Interesa duenak urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztu behar du kurrikuluma.



BERTIZKO PARTZUERGOAK

ADMINISTRARIA HAUTATZEN DU

BETE BEHARREKOAK:

- Formakuntza akademikoa: FP II edo baliakidea
- Euskalduna izatea
- B-1 gidabaimena eta kotxea izatea
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana izatea.

KONTUAN IZANEN DA:

- Formakuntza akademikoa:
 - FP II Administralari arloa, Enpresaritza, EAZL, Ekonomia
 - TEAT
- Erlazionatutako Formakuntza osagarria
- Erlazionaturiko lanpostuetan lan esperientzia izatea.

Kurrikulum **QSATUA** (ziurtagirien fotokopiak eta bizi laborala) Bertizko Partzuergoako Turismo Bulegoan (Oieregi) aurkeztu behar da urtarrilaren 30eko 14:00ak baino lehen (Orduetgia: 8:30etatik 14:00etara)

Informazio gehiago CEDERNA-GARALUREko Lan Orientazio eta Kudeaketarako Zerbitzuko 619 829289 telefonoan (Oskia Baraibar)



Bidali

ttipi-ttapa

herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

☎ (+34) 948 631188

Osasuna

osasun gida · osasun gida · osasun gida

- >>>>> Optikak
- >>>>> Hertz klinikak
- >>>>> Podologia
- >>>>> Logopedak
- >>>>> Belardendak
- >>>>> Masajistak
- >>>>> Psikologia



Albisu hertz Clínica
Iker Albisu Altolagire
Otonotologia Medika - Km. Zusa 449

Ordu eskaintza: 9:00 - 13:00 | 15:00 - 19:30

☎ 948 631 631
Iparraidea 3 - 2.ezk. 31780 Bera

Clinica Dental
Irurita - Rubio
ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA

Dr. Jose Luis Irurita (KOL240)
Dra. Biotza Rubio (KOL241)
odontologia medikuak

Rx panoramikoak - periodontzia - kirurgia
endodontzia - protesiak
ODONTOPEDIATRIA - PADI
ortopedia maxilarra - umeak eta helduak

Doneztebe 948 450 267
Rosa Seminario, 19-1 Esk.

Leitza 948 610 713
Manuel Lasarte, 7-2 Esk.

Dr. Guy Randé **Kontsultak**
Odontologoa **Astearte, ortzegun**
eta larunbat arratsaldez

LARUN HORTZ KLINIKA



Tel: 948 631057 • San Esteban 21 • BERA

Ostargi Optika

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentilten adaptazioa
- Begitelako lentsoaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 2-3 urteetatik aurrera haurren errebisioa

Bidasoa 8 • BERA • Tfnoa: 948 630 753

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA

kontsultarako eskatu ordua

Tfnoa: 948 27 20 11
(IRUÑA)

Jaime Urrutia, 42-2. D • ELIZONDO
Tfnoa: 948 58 09 75

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA

- ☑ San letriguak
- ☑ Trefika letriguak
- ☑ Kirok letriguak
- ☑ Gihar, artikulazio... minak
- ☑ Biskortze arriak
- ☑ Bertze tratamenduak
- ☑ Masajak
- ☑ Etkez etxeke laguntza

Itzea, 20 BERA
Tfnoa 948 630187
Mugikorra 607 853206

FISIOETXEA
Ane Egizabal Llata

FISIOTERAPEUTA

- Errehabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio Masaia
- Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
- Etkez etxeke laguntza
 - Mutuak
 - Aseguruak
 - Partikularrak

Huarte Gotzaia 8, 3.C • LEITZA • Tfnoa: 948 510 730

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin IRAZOKI
Fisioterapeuta

Eztegara, 24 • BERA
Parrokia, 5 • DONEZTEBE
Tfnoa: 670 471 200



BELARDENDA
Naturista kontsulta
Masajista

Legia 1, behea • BERA
Tfnoa: 948 630 652



osasun gida · osasun gida · osasun gida

Zure publizitatea sartzeko deitu
948 63 11 88 telefonora
kulturkari@euskalnet.net

Restaurant • Bar • Bodega

JATEIXEA
OSTATUA
BODEGA



Sokoburu Plaza • 64700 HENDAIA
Tel. 05 59 48 12 12 - Fax 05 59 20 49 70



Iñakik
euskal
sukaldaritzako
bere
espezialidadeak
proposatzen
dizkizue
Hendaiako
kirol portuaren
ondoan.

Astearteak itxita

Ezkontza eta
jaunartzeak



UDALBILTZA[®]

EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

UDALBILTZA[®] k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltzainfo.com



IÑAUTERIAK, IHOTEAK, KARNABALAK

Mozorro, joaldun eta atso guratu en txanda



Eratsunen eta Orabidean lehen agerpena egin ondotik, aste hondar honetan iñauteriek segida izanen dute Sunbillan, Iturenen, Zubietan, Leitzan... eta ondotik etorriko dira bertze herri aunitzetakoak ere. Sunbillan emakumeen afariarekin hasiko dira.

Bertako nahiz bisitari, lotsak alde batera utzi eta ongi-ongi pasa iñauteriak.



102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

TXOTX

denboraldia berria hasi dugu

- Astegunetan, arratsaldeko 6,30etatik aurrera zabalik.
- Asteburuetan, eguerdian ere zabalik.
- 250 lagunendako lekua jarrita.
- 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizatua.
- Sagardoa bertan egiten dugu, sagarra Irun, Hondarribia eta Zarauztik ekarriz.

FONDA

o s t a t u a

Donibane karrika
Tfnoa: 948 45 01 80
SUNBILLA



ITURENGO UDALA AYUNTAMIENTO DE ITUREN

AURTIZKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Iturengo Udalak, 2003ko azaroaren 28an egin osoko bilkuran, enkante publikorako deia egin zuen "Aurtizko Ostatua" deitutako lokalean (Iturengo Aurtitz auzoan) tarberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua adjudikatzeko, baldintza hauei jarraikiz:

- **Errentamenduaren iraupena:** 10 urte; beste 5 luza daiteke.
- **Alokairua:** 2 osagai ditu:
 - Sari finko edo alokairu aurreratua: 12.000 euro gehi % 16 (BEZa).
 - Hilabeteko alokairua: 480 euro gehi % 16 (BEZa). Hau izanen da hasierako prezioa.
- **Eskaintzak aurkezteko epea:** eskaintzak Iturengo Udalararen idazkaritzan aurkeztuko dira, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko hamabost egun naturalean, onetsi den administrazio klausulen pleguan adierazitako moduan.
- **Behin-behineko fidantza:** 1.500 euro.
- **Proposamenak irekitzea:** Udalararen osoko bilkuran, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoan.
- Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen eskura dago, Udaleko idazkaritzan.

Iturenen, bi mila eta hiruko abenduaren hamarrean.
Alkatea, José María Gorosterrazu Elizalde.

MARISOL JANARIDENDA

Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 08 - SUNBILLA



GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



DISFRACES LA MASCARA

- Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
- Era guzietako esagarrien alokairua eta salmenta
- Festen prestakuntza
- Makilari profesionalak...

Abejeras, 6 • Tel-Fax: 948 25 00 04 • IRUÑEA

ALTZINEA
ERRETEGIA



ITUREN

Asteburutan,
besta egunetan
eta bezperatan
irekia
Inauterietan
irekia

Ongi pasa
inauteriak!!

© 948 450410 • Ituren

Sunbillako Ina

Igande hone-
tan, azken ur-
teotako inau-
teriek izan du-
ten arrakasta
ikusita, berriz
ere jende pila bat bil-
duko da Sunbillako
karriketan. Ikusleek,
gainera, hotzari aurre
egiteko pintxoren bat
eta salda bero pixko
bat jan-edateko au-
kera izanen dute, sun-
bildarrek horretarako
espres egiten baitute
karroza bat.

Baina igande a
inauterietako azken
eguna da Sunbillan.
Aitzinetik ere aski as-
teburu mugitua izat-
en dute sunbildarrek,
ortziral goiz-goizetik
hasita:

Ortziralean, puxka biltzea eta emakume afaria

Ortziral goizeko
9etan abiatuko dira
inauteriak, Itturburu
ostatuan abiatu ere.
Hantxe bilduko dira
gazteak gosari ederra
egiteko. Ondotik, ba-
serrietara joanen dira
urteroko eskea egite-
ra, Modesto eta Joxe

Angel akordeolarie-
kin. Etxe guzietan
ederki hartuko dituz-
te eskean etorritako-
ak, dudarik ez, bai-
nan bereziki Istolan
eta Ezkeneko bordan.
Izan ere, eguerdiko
2etan bazkaria egingen
dute bi baserri haue-
tan.

Arratsaldeko 5etan
txokolatada izanen da
Ulubeltzak elkartean
haurrentzat, Mikel
Salaberriren musika-
rekin. Akordiolaria
udaletxera joanen da
gero eta dantzaldia ar-
kupetan izanen da, bai
haurrentzat eta bai
helduentzat arratseko
8etatik aitzin 10ak al-
dera arte.

Arratseko 10,30ak
aldera, gazteek Elor-
Txurin afalduko du-
te, eta emakumeek be-
rriz, Ulubeltzak elkar-
tean. Aurten Joxe An-
gel izanen da musika
jarriko duena.

Larunbatean gaz-
teak goizeko 9etara-
ko Iruribietan bilduko
dira gosaltzeko, eta
ondotik herrian bar-
na aterako dira eske-
an, goizean Modesto



Auterriak 2004



Emakumeen afariak, gazteen gosari-bazkari eta afariak, gaztetxoenen berenduak... Dudarik ez da otorduen kontua garrantzitsua dela iñauterietan. Gainera, lotsak kentzeko ongi hornitutako mahaia lagungarri izaten dela ez da zalantzarik. Horren erakusgarri Sunbillako iñauterietan ateratako argazki hauek. Goitian, baserritarrez jantzitako neska koadrila ageri da. Beheitian, Asterix eta Obelixen herriko druida izateko ikastaroren bat? Eta Ondoko argazkian, neska indiarak.

Edurne Zubietak utzitako argazkiak

eta Mikel Salaberriekin. Arratsaldean ere bi akordiolariak arituko dira, baita arkupetan ere. Eguerdian Fondan bazkalduko dute, eta herrian eskean ibiliko dira, arratsaldeko 8,30etan mozorroen dantzaldia izanen da arkupetan Modesto eta Mikel Salaberriekin. Aurtentzen berrikuntza gisara, pailazoak izanen dira Ulibeltzak elkartean arratsaldeko 5ak aldera. Arratsean Bus-titz jatetxean afalduko dute.

Aitzineko bi egunetan bezalaxe, igande goizeko 9etan gosaltzeko bilduko dira sunbildarrak, oraingoan koadrila bakoitza bere txokoan. Herria bisitariz beteko da laster, eta sunbildarrak karrozak hartuta herrian barna desfilean ibiliko dira. Aitzineko hilabeteetan egindako lana erakusteko ordua da, karroza horiek ez baitira egun batetik bertzerara prestatzen. Goizeko 12:00etan abiatuko da desfilea Doneztebe-ko Beti-Alai txarangarekin. Zerria eta bildotsaren zozketa egingen da desfilea akitutakoan. Gero, Ulibeltzak elkartean herri bazkaria egingen da.

Bazkalondoan Jallisko Band taldearen musika izanen dute giroa alaitu eta iñauterriak ongi akautzeko.


IZARRA eraikuntzak
Kontsejo 14 • ITUREN • ☎ 948 450187

Gitonena
eta
Enakumeendak
Boutique

**HONORIO
TABERNA**
MERKEALDIK

Tfnoa: 948 450 109 - Merkatarien kanika 29. - DONEZTEBE

Juan Luis Apeztegia
Garraioak

Mendeberri • **SUNBILLA**
☎ 948 450778 • 639 723673



ALTZUBI MENDI LAN - ESBAKERTZIOA
Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 287
SUNBILLA - NAFARRA

Ongi pasa Iñauterriak!

Maria Jesus

HARATEGIA
Bertako haragia

Karrika Nagusia, 11
Tfnoa: 948 45 15 30
SUNBILLA

IRURI 
MOTOR 

Aukerako autoak
4x4 autoetan modelo guztiak
Salerosketa zerbitzua

Iruña-Irun errepide zaharra, 61'5 km.
☎ 948 450399 • **SUNBILLA**

Ituren, Aurtiz eta Zubietako

Beti bezala, ortzegunean, urtarilaren

22an joaldunek eginen duten lehen puxka biltze eta afariarekin hasiko dira Iñauteak Aurtiz, Ituren eta Zubietako aldean. Larunbatean izanen dute segida, afaria eta dantzaldia egiten baita egun horretan.

Igandean, jantzi osoa paratuz, lehen ibilaldia eginen dute joaldunek karriz karriz.

Joaldunen joan-etorriak

Astelehenean, urtarilaren 26an, moztorro eta karrozek lagunduta joaldun zubietarrek eta aurtiztarrek bisita eginen diete Iturengoei. Lasagako Zarandia parean, Aurtiztik heldu den bidetik agertuko dira, eta joaldun guzietan batera, herriari buelta emanen diote.

Asteartean, urtarilaren 27an, Ituren, Aurtiz eta Lasagako



Foto MENA

joaldunek bisita buelatuko diete zubietarrei,

urtero-urtero, batzuen ustez natura er-

natzeko eta uzta berri eta ugariak em-

teko egiten den ohi-turari eutsiz.



Teilatuko zurak

Etxe zaharren moldaketa

Etxe berriak

Eskailerak

Sukalde-mobleak

☎ 948 451906 • 689 53 10 12
AURTIZ



ako Iñauteriak 2004

Asteazkena lasaia-
goa izaten da, bakoitza bere herrian gelditzen baita, eta bazkari eta afarien artean besta egiteko eta azkeneko gau eta egun luzeetan gertatutakoen balantzea egiteko erabiltzen dena. Aurtitz eta Iturenen, halere, etxez etxe dirua eta puskak biltzen eta kaferen bat hartzen ibiltzen dira gazteak.

Kontuen Eguna

Kontuen eguna izaten da, hain zuzen, Iñauteetako azkena. Egundorretan ez da joaririk jotzen. Zubietan asteakenean egiten dute. Iñauteak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen eta Aurtizen, aurten urtarrilaren 31n izanen da.

Iturenen bazkaria izaten dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzinetik bertsolariak eta aizkora apostua izanen dute herriko plazan.

Bazkaldu ondotik dantzaldia izanen da eta, mozkorraldia izu-

garria ez bada, bederen, bestarekin segitzeko aukera dago, afari eta dantzaldian.

Aurtizen xaharrek afaria egiten dute eta Iturenen kontuen afaria, iñauteak heldu den urtera arte agurtuz.



Argazkiak: Mena eta Zaldua

Urtero bezalam joaldunen ongi-etorriek iragarriko dute iñauteria. Bereaiekin batera, mozorroak ere ibiliko dira Ituren, Aurtitz eta Zubietako karrketan barna, ikusle ugarien gozamenerako.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



**SANTESTEBAN
ZURGINDEGIA**

OIHAN ESPLOTAZIOAK

ZERRATEGIA • ZUREZKO HABEAK
MOLDURAK • ZEPILLATUA
TRATAMENDUA AUTOKLABEAN

BAZTANEA • ZUBIETA

Tel. 948 45 08 77 - Faxa 948 45 19 94



BULDAIN
inmobiliaria

Iñauteri onak pasa!

Tel. 948 510534
Mug. 649 476615
LEITZA



MUSUNZAR
Logelak • Ostatua • Taberna

© 948 510607-948 510475
Elbarren 14 • LEITZA

Leitzako Iñaut

Xabier **m**artinikorena
Aislamientos S.L.

Pladurrezko sabai eta tabikeak
Isolamendu termiko akustikoak
Etxe moldatzetan espezializatuak
Sabai desmuntagarriak

948 610 678
699 699 526
LEITZA

Ongi pasa Iñauteriak!

❄️ **IZOZTUEN ETXEA** ❄️

Especialitatea:
kroketa, piper beteak eta mariskoak

Elbarren 80 • © 948 610885 • LEITZA

LEIZ N I K

ERAIKUNTZAK

Patxi Arrazola, 14 • 1.A
Tel. 948 610 934 / 948 610 927
Mugikorra 689 231 961
LEITZA

KAFETEGI • GOZOTEGI • OKINDEGIA



- Ogi egin berria
- Prentsa, gosari goxo-goxoa
- Delicatessen
- Pastak, pastelak, bonbonak
- Tartak (enkarguak egun batetik bestera)

Elbarren 20 • Tel: 948 510 720 • LEITZA

BIKOITZ TABERNA

- Pintxoak
- Tarta eta bolloak
- Pastelak

Elbarren 16 • © 948 510072 • LEITZA



Argazkiak: Mikel Illarregik utziak
1985eko iñauterietan erromatar talde hau agertu zen Leitzako plazan, baita punkie koadrila ere.



A

steburu honetan hasita, aurtengo iho-teaz gozatzeko aukera izanen dugu, honako egitarau zabal honekin:

Ilbeltzak 24 Larunbata

16:00etan eskea herriko etxeetan.

22:00etan Bertsao afari mundiala sagardotegian.

24:00etatik aurrera Trikidantz taldearekin dantzaldia.

Ilbeltzak 25 Igandea

12:00etan karrozak herrian zehar, Inkansables txarangak laundurik.

14:30etan Herri Bazkaria.

19:30etatik 21:00 etara eta 23:30etatik 2:00etara Gaubela taldearekin dantzaldia.

Ilbeltzak 26 Astelehena

9:00etan Baserritako eskea.

16:00etatik 19:00etara Kultur



Taldeak antolaturik: Buruhausgarriak (erreziklatutako materiallez egindako jokoak). 5 urtetik gorakoentzat. Bi gaztelu puzgari ere izanen dira 5 urtetik beherakoentzat.

Hau eguraldiaren arabera plazan edo frontoian egingo da.

19:30etatik 21:00etara Gaubela taldearekin dantzaldia.

Bitarte horretan eskalarien iristea eta Aurreran Bazkari-atsaldeko afarie.

23:30etatik 2:00etara Gaubela.

Ilbeltzak 27

Asteartea

9:30etan Baserrietako eskea.

11:30etan Eskolan Inkansables txaranga arituko da.

14:30etan Aurreran bazkarie.

15:30etan Eskolako ikasle eta irakasleen kalejira Inkansables-ekin.

16:00etan Txokolatada.

19:30etatik 21:00etara eta

23:30etatik 2:00etara dantzaldia eta ihoteen bukaera

Gaubela taldearekin.



TABERNA

- OGI EGIN BERRI-BERRIAREKIN EGINDAKO OTARTEKOAK
- KAXUELA
- ERA ASKOTAKO PINTXOAK (Rabak, olagarroa, ziztorra...)

Elbarren, 16 ☎ 948 610864 • LEITZA

JOSE IGNACIO ARZALLUS

Harategia - Urdaitegia
Etxeko txistorra

☎ 948 510377 LEITZA / ☎ 943 683042 BERASTEGI



Sucriones de
José GOMEZ, S.L.

• IHALAK

*Ihote onak
igaro!*

Elgoien, 30 ☎ 948 51 01 30 • LEITZA

L z r r
h r t



948 510283 • Herriko Plaza • LEITZA

Charter
LEITZA

Elbarren 20 eta 71

☎ 948 610657 • 948 510007



LEITZA GARAGEA

PEUGEOT AGENTZIA

Direkzio eta ordenadore bidezko azterketak

Amazabal 29 • ☎ 948 51 04 66 • LEITZA

SAGASTI JATETXEA

Ongi pasa ihoteak

Tolosako bidea • ☎ 948 610637 • LEITZA

VRKIOLA

HARATEGIA - VRDAITEGIA

Elbarren 94 • ☎ 948 510467

Elgoien, 6 • ☎ 948 510747 • LEITZA

Leitzako Iñauteriak 2004



ARAKINDEGIA JATETXEA

- Menua eta karta
- Garaien garaiko otorduak

Elbarren 42 • © 948 510052 • LEITZA

GAZTAÑAGA TABERNA

BOKATAK eta PINTXOAK

Plater konbinatuak

Elbarren, 55 • 948 610708 • LEITZA

LENITZ

EDATEGIA

- ★ «INSALUS» Ura banatzailea
- ★ «SAN MIGUEL» garagardoa
- ★ «COCA-COLA» banatzailea

Manuel Lasarte, z/g © 948 510333 • LEITZA

gaztelu

iturgintza

kalefakzioa
saneamendua
gasa

© 948 510086 / 510156

fax: 948 610856

LEITZA

LEITZA



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Belatek antolatutako Emakumeen Pala Txapelketaren finalak jokatu ziren **ibeltzaren 10ean Leitza**n. Igantzi, Etxarri-Aranatz, Leitza, Auritz, Aurizberri, Erratzu eta Iruñeako neska eta emakumeak aritu dira txapelketan. Horieta zenbait bikotek orain Euskal Herriko Liga jokatzeari ekin diote.

FLASH



Egungo egoeraren azterketa

Arnaldo Otegi izan zen herrian Aurreran antolatutako batzarrean. Bertan 100 lagun baino gehiago bildu ziren eta egungo egoeraren azterketa egin zen. Bargarako proposamenaren edukia azaldu ziotuen eta martxoko hauteskundeei begira euskaldunok batera joatea garrantzitsua bada ere, batasun hori areagotu behar dela esan zuen.

Larunbatetik asteartera ihoteetan atsoguratzeko aukera izanen da

Patxi Arrazola auzoa berritzeko bi proiektu onartu ditu Udalak

Mikel ILLARREGI

Eguberrietako festak igaro berri diren arren, asteburu honetan bertan gainean ditugu ihoteak. Aurten itxura denez, besteetan baino pixka bat lehenago egokitu dira eta askoren ahotan dago denbora asko ez dela izan gauza handirik prestatzeko. Hau horrela, hala ere, giro on eta umoretsua ez dela falta izanen, ziur gaude. Musikariekin batera herrian barna lehenengo eskearekin hasi eta "gaixoa ni" bitarte, lau eguneko aukera egunerokotasunetik ateratzeko eta gure barnean askotan gorderik eta isilik dugun ausardia kanporatzeko. Beraz, animatu, atsoguratu eta kanta, dantza eta umore oneko girotan murgildu lotsarik gabe.

Patxi Arrazola berriturik

Laster ikusi ahal izanen dugu Patxi Arrazola auzoa itxura eta barnegituraz berriturik, azken Udal Batzarrean auzo honetarako bi proiektu onartu baitzituen. Batzuk, zoladurari dagokion eta sare berriei dagokiena bestea. Alde batetik kamioa, kaleak, espaloiak, berdeguneak, aparkalekuak... zehazten dira eta bestetik ura, argindarra, gasa, telefonia,.... igaroarazteko barnegitura.

Proiektu asmo hau beharrezkoa ikusten bada ere, aparkalekuekin sortu da arazo edota eztabaidarik handiena. Proiektu honetan, 560 biztanle dituen auzoan 90 aparkaleku aurrakusten dira eta jakina da egun, auzo horretan 455

ibilgailu daudela udaleko erroldan. Lau eguneko (ordu ezberdinetan) eginiko neurketan, banaz beste 115 kotxe zenbatu dira aparkaturik. Ikusten denez, txiki samar geratuko da.

Bestetik garesti xamarra edota merketzeko hainbat neurri proposatu ditu Larrain plataformak. Aurrekontua 979.000 eurokoa da eta neurri ezberdinak hartuz 930.000ra jaitsi daitekeela uste dute. Esan beharra dago aurrekontuaren %73ko subentzioa izanen duela.

2004ko zerga, tasa eta prezio publikoak

Udaletxean dauden udal taldeen onespenerarekin onartu ziren aurretik aipatutakoak. Asko badira ere, bakar ba-

tzuk aipatuko ditugu.

Dokumentazioa

- Hirigintza txosten teknikoak egiteagatik; 30 euro.

Zaborrak bildu eta tratatu

- Etxeko zaborrak; 18,45 euro, lau hilean behin.
- Dendek; zerbitzuaren arabera bakoitzak bere tasa du.
- Jatetxe, tabernek; 203,46 euro.
- Industrialdea; 145,66 euro.
- Hotelak, 520,25 euro.

Ur horniketa

- etxebizitzetako kontsumoa, 50m³ arte, lau hiletik 7,24 euro. Hemendik gora m³ bakoitzeko 0,36 euro.
- industrien kontsumoa, 650 m³ arte lau hiletik 0,31 euro/m³. 650m³-tik 2000m³ bitarte, 0,70 euro/m³. 2000m³-tik aurrera, 1,00 euro/m³

Leitzako Gabonetako laugarren Pilota Txapelketa

Belate elkarteak antolatuta, Leitzako IV. Gabon txapelketa jokatu da, eskuz binaka. Finaletan, kadete mailan: Apezetxea (Umore Ona) eta Beloki (Aurrera), 22; NARBATE (Umore Ona) eta Iriarte (Aurrera), 16. Gazteak: Olazabal (Aurrera) eta Viñaras (Zugarralde), 22; Urtxipia (Zugarralde) eta Elizalde (Txaruta), 15. Helduak: I. Bengoetxea (Aurrera) eta Mintegi (Lizartza), 22; Azpirotz (Aurrera) eta Tirapu (Zugarralde), 18.

Lur publikoaren erabilpena

- terrazak; 19,23 euro mahai bakoitzeko
- erlauntzak; 0,93 euro bakoitzeko

Udal larreak

- ardiak eta ahuntzak; 1,07 euro bakoitzeko
- behorrak eta behiak; 10,70 euro bakoitzeko.

GOIZUETA

Euskal Herriko naziotasuna aitortzeko aukera

Euskal karneta tramitatuko da Udaletxean hilaren 24 eta 31n

Esteban AROTZENA

Euskal Herriko Naziotasun Aitormena, EHNA, tramitatu nahi duten herritarrei aukera ezin hobe eskainiko zaie hurrengo bi larunbatetan, goizeko 11:00etatik 13:00etara Herriko Etxeko bulego batean egon baitira inprimakiak eta antolatzailak jendearen zain.

Udaletxean aurrez ateratako errola agiria, beste edozein karneta egiteko erabiltzen diren bezalako hiru argazki eta gastuei aurre egiteko izanen diren 15 euro eraman behar ditu karneta egin nahi duen bakoitzak. 2002ko maia-

tzean egin zen herrian lehenengo aldiz EHNA-ren aldeko kanpaina. Ia ehun lagunek egin zuten karneta orduan, eta oraingoan beste hainbeste herritar animatzea da antolatzailen helburua.

Gaztetxekoek herri inkesta

Azken aldi honetan egin dituzten eta hemendik aurrera egin asmo dituzten ekitaldiei buruzko herritarren iritzia jakin nahi omen dute Gaztetxekoek, eta horretarako modurik egokiena herri inkesta bat egitea dela iruditu zaie. Etxez etxe banatu di-



ARTXIBOKOA

Zakurrak kalean libre ibiltzearen debekuarekin bandoa atera du Udalak.

tuzte dagoeneko orriak, eta erantzunak jasotzen ere hasi omen dira. Oroitarazi, behin betetokian, Amaiarenean, harategian eta Urrutinean propio horretarako presaturik dauden kaxetara bota behar direla erantzun-orri hauek.

Zakurrak kaletan solte

Zakurrak kaletan solte ibiltzeak herritar askori sortzen dien egoenezina ez da oraintxe-



ko kontua. Tarteka-tarteka bandoak kaleratzen ditu Udalak, jendearen kexei erantzunez. Orain ere horrelaxe gertatu da. Beraz, Udalak berriz ere

jakinaren gainean utzi ditu herritarrak zakurrak kalean libre ibiltzearen debekuaz. Ez da isuririk aipatzen bandoan.

ARESO

Eluseder industrialdeko lanak eskariaren arabera egingen dira

Bestalde, izatezko bikoteen eta obra bukaerak arautzeko ordenantzak onartu ditu Udalak

Juana Mari SAIZAR

Eluseder industrialdeko proiektua aurrera doa eta Udalaren asmoa ahalik eta gehien ezagutzera ematea da eta partzelen salmenta hitzartuta gero, eskari horren arabera egiten hasiko dira beharrezko lanak. Industrialde ho-

nek 50.000 eta 60.000 metro koadro arteko eremua dauka.

Izatezko bikoteen eta obra bukaerako ordenantzak

Udaleko azken batarrean bi ordenantza onartu ziren. Lehena,

izatezko bikoteen erregistroa erraztea Herriko Etxean eta bigarrena, obrei dagokiena. Udaleko arkitektoak jarraipena egingo dio obra guzietan eta obra bukarako agiria eman baino lehen, obra horretan herriko kale, farolak, tuberiak eta abar kalte-



Artxibokoa

Udalak ezagutzera eman nahi du Eluseder industrialdea eta eskariaren arabera egingen dituzten beharrezko lan guztiak.

tuak suertatuko balira, konpondu arte ez da agiria emango.

Beste aldetik, 2003.

urteko kontuak egin eta gero, 12.000 euro arreztu dira herriko festetan.

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

Papera eta kartoia bereizteko 30 zaborrontzi jarriko dira

Gorputza azkartzeko ikastaroa hasi da Akelarrenean

Margari eta Koro

Orain arte birziklaia kontuan franko eskas ibilki ginen (erreziklatzen zen bakarra kristala zen), baina hemendik aintzina papera eta kartoia ere bereizten ahal izanen da, bi herrietarako 30 kontenedore jarriko direlako. Kontenedore hauen kostea 6.310 eurokoa da, baina guztia Nafar Gobernuak laguntzaz ordainduko da, 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planaren barne.

Gorputza azkartzeko ikastaroa

Urtarrilaren 8an "Pilates" metodoa erabiltzen duen gorputza azkartzeko ikastaroa hasi zen. Astean bitan ematen da Akelarrenean eta bi herrietako partehar-tzaileak daude.

Urteko balantzea

Urte hasieran akitu denaren balantzea egiten da, eta huna hemen gure herrietako biztanleriari buruzkoa: 2003 urtean Urdazubini jaiotza bat eta 6 heriotza izan ziren; Zugarramudin berriz 4 jaiotza eta 4 heriotza.



ARTXIBOKOA

Zugarramurdiko ospital zaharra moldatzeko bigarren pausua eman da (lehenbizikoa Herriko Etxeak eraikuntza bere gain hartu ahal izatea izan zen) Udalak Nafarroako Gobernuarekin konbenio bat sinatu du, eta horren arabera moldaketa lan batzuk egin ahal izanen dira. Lan hauek denetara 42.380 euroko gastua izanen dute, eta kopuru horretatik 38.141 euro Gobernuak ordainduko du. Beraz, laister hasiko dira hain beharrezkoak diren lanak (gaur egun egoera peningarrian dago eta).

Salbatore monastegiko klaustroa berritzeko proiektua aztergai

Urdazubiko Udalak Salbatore monastegiko klaustroa berritzeko proiektua aztertzen ari da, garai batean izan zuen garrantzia berreskuratu eta kultur nahiz gizarte arloko erabilera eman ahal izateko. Goiko solairuan erromesendako aterpea moldatu nahi da eta lehendabizikoa izanen litzateke Santiago Bideko Ainhoa-Urdazubi-Baztan adarrean. Lan hauetaz Urdazubi eta Baztango Santiago Bidearen Lagunak arduratuko lirateke. Klaustroko lanak, berriz, Udalaren esku egonen ziren. Bietan, dirulaguntza ezberdinak eskuratzeko aukera aztertuko dute bi erakundeek.

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

 CAFÉ DE LA MAIRIE
 MAIXAN ETA VÉRONIQUE
 SARA • TEL. 0559542519

ARMUA

Jatetxea
 Zugarramurdiko karretera 3. Km
 © 948 599 131 - URDAZUBI

ZOANSA

SALMENTA
 MARKA GUZIEN KONPONKETA
 Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05
 Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
 (Sarrera Beratik)

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

© 948631076 • BERA

BAZTAN

Baserrietako pistak hobetzeko 56 proiektuendako laguntza eskatu du Udalak

Nafarroako Gobernuak %60a bitarteko dirulaguntza ematen ahal du

ttipi-ttapa

Mendialdeko abelzaintza azpiegieturak hobetzeko Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzetarako 56 proiektu aurkeztu ditu Balleko Udalak. Gehien bat, pistak ormigoizatzeako proiektuak dira, 65 kilometro guzira eta banaz bertze kilometroko 66.000 euro gastatuko dira. Horretaz gain, ur ekartzeak eginen dira Erratzu, Elizondo eta Berroetan eta bertze zenbait lan. Nafarroako Gobernuak %60a bitarteko laguntza ematen du, 180.000 euro gehienez. Finantziaturik ez den zatia auzolanean egiten da edo baserritarrek emanda-ko laguntzarekin.

Virginia Aleman eta bertze bi zinegotzi, eskariak aurkezteko zegoen lehen egunean, urtarilaren 2an joan ziren Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamendura eskariak sartzera. Izan ere, Nafarroako Gobernuak eskariak



MAITE JUANKORENAK UTZITAKO ARGAZKIA

Eguberri egunean 130 kiloko basurdea ehizatu zuen Jose Mari Juankorena arraioztarrak, Arraiozko Larrazu inguruan. Orain zortzi urte bere osabak 125 kilokoa harrapatu zuen, orain arte Arraiozen hartutako haundiena.

aurkeztutako ordenaren arabera ematen ditu dirulaguntzak, atal horretarako dagoen dirua akitu arte. Balleko Udala ez dago banaketa modu honekin konforme, baina, halere lehen egu-

neko lehen orduan Departamenduan zigilatu zuten eskaria.

PROIEKTUAK HERRIKA

Amaiur: Ormigoizatzea Komainekomendia, Barrantxekoborda,

Agotxenekoborda, Xorikainekoborda, Arluzerdikoborda, Bordazurrikoborda, Alamanekoborda eta Agerrekobordan; asfaltatzea Datxipikoborda eta Kortarikobordan. **Erratzu:** Mor-

talenerreka, Zelaieta, Telleri eta Erlota, zerrakura Itzulegi eta Gorostapolon, ur-ekartzea.

Arizkun: Aintzialde, Ansestegi, Errekakomalda eta Erratzuriz Soalar.

Azpilkueta: Larrokoborda eta Larro. **Elbete:** Miloa eta Amezti, saneamendua Autxitxia eta Elbetegaraian.

Eli-zondo: Beltzuritik ur-ekartzea. **Lekaroz:** Atxoborroa eta Iñarzeta.

Gartzain: Ezkaldokobidea eta Urballo. **Iru-rita:** Legaletakoborda, Gartzipotenekoborda, Gernuxarrekoborda eta Pellonekoborda.

Arraioz: Agerre, Laskanberrikoborda, Señoreneakoborda, Gamiokoborda, Dolarekoborda, Indakoborda,

Mokotokoborda, Artxekoborda eta Mitxelenekoborda. **Ornoz-Mu-**

gairi: Gaztaintzelai eta Ezpondakoborda. **Ziga:** Idoia, Soraburua eta Elizaldekoborda. **Berroeta:** Izkue eta Iraperrri. **Al-**

mandoz: Etxeberrikoborda eta Uzqueta.



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

ORDOKI LIKOREAK

ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak




ONASKA

ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasen

Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

BAZTAN

6.304 euroko galerak izan zituen iaz Elizondoko herriak

Hilerria kudeatzen duen batzordean aldaketak izan dira

ttipi-ttapa

Errege egunean egin zen Elizondoko Herriko Etxean urteko lehendabiziko batzarra. Gan den urteko kontuak aurkeztu ziren. 12.304,02 euroko galerak izan ziren, baina auzolan eta dirulaguntzetan 6.000 euro kobratzea falta denez, 6.304,02 eurotan geldituko da diru-galera. Datu hauek ematen lau kargodun izan ziren, Rafael Olaizola, Mari Cruz Goñi, Irantzu Izeta eta Carlos Barbero. Izan ere, Michel Eraso alkatea Mexikon dago, lan kontuak direla eta. Lau hilabetez han biziko da, baina hilabetean behin Elizondora etorriko dela erran du.

Rafael Olaizolak zehaztu zuenez, 80.685,82 euroko dirusarrerak izan ziren iaz, kobratzeko falta diren 6.000 euroak kontatu gabe. Santio bestetan (29.004 euro) eta ferietan (13.203 euro) bildu zuen diru gehien Elizondoko herriak. Gas-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Erratzuko Bidegorrietan argindarrrik gabe bizi dira Juan Marisco eta Mari Carmen Etxebertz senar-emazteak, Jose Maria eta Antonio semeekin. Afera konponbidean jarri du Balleko Udalak eta Aesol enpresak eguzki, haize eta uraren indarra erabiltzen dituen sistema diseinatu du, 88.000 euroko aurrekontuarekin. Kontuan hartu, argindar kablea jarri beharko balitz, 300.000 euro gostako litzakeela.

tuak, berriz, 92.989,84 eurokoak izan dira, erdia baino gehiago, 51.679,79 euro, Santio bestetarako bideratuak.

Gan den urteko hilerriko kontuak ere aurkeztu ziren batzarrean. 48.710,56 euroko gastuak izan ziren eta 26.927,05 euroko sa-

rarrerak. Beraz, 21.873 euroko galerak izan ziren, baina kontuan 24.918 euro badirela jakinarazi zuten kargodunek. Kanposantuari dargokionez, erran behar da kudeaketaz ardurtzen den batzordea zutea erabaki dutela Santti Aldakok eta Agustín

Olabek, alkatearekin eta bere taldearekin «ezadostasunak» izan dituztelako. Kanposantuko batzorde berria izendatu zuten bileran. Anatasio Nagorek, Gabriel Laborrak, Benito Elizagoienek, Rafael Olaizola eta Michel Eraso alkateak osatuko dute.

Irurita eta Elizondo arteko errepidearen proiektua Peycok idatziko du

Irurita eta Elizondo artean N-121-B errepidea hobetzeko proiektua Peycok enpresari eman dio Nafarroako Gobernuo Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak. Enpresa honek 88.900 eurotan egingen du lana, enkantearen hasierako prezioa %17,69 jautsiz. Moldatuko den zatia Arraiozko saihesbidean hasi eta Elbeteko herrigunea pasatutakoan akituko da, 6 kilometro guzira. Proiektuarekin gaur egungo trazatua hobetu nahi da eta saihesbideak egingen dira Irurita, Elizondo eta Elbeten. Errepide berriak bi errei edo karril izanen ditu, bere bazterbideekin. Zenbait lekuetan, ibilgailu astunendako hirugarren karrila egitea ere aztertuko du Peycoren proiektuak.



asnáp.me

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

<ul style="list-style-type: none"> • LANGILE AUTONOMOAK - Garraioak - Elektrizitatea - Eraikuntza - Igehseroak... • NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK • ENPRESA GUZIAK 	<ul style="list-style-type: none"> - Nominak eta Aseguro Sozialak - Kontabilitateak - IVA eta IRPF - Gornaiolan asesoramendua - Diru-laguntza ezberdinak - Sozietateen inpostuak - Errenta atzerpenak
--	--

DONOSTIA
Euz. Seminare, 4. beheko
Telef. 948 411822 / Fax: 948 411418
www.asnap.me

ELIZONDO
Santio, 31. beheko
Telef. 948 580 586
elizondo@asnapp.me

BERGARA
Santio, 1. beheko
Telef. 948 261208 / Fax: 948 261144
bergara@asnapp.me

BURKAITZEA

ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO



OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

SENPERE

INRA erakundeak kolokan ikusten du lanpostu batzuen geroa

Frantziako justiziak "gerla ekonomikoa" ireki du Demoen kontra

Franc DOLOSOR

INRA erakundearen geroa dudan egon ditakela uste du Sachi Kausik zuzendariak. Lanpostu berririk ez da gehiago sortzen eta hiruzpalau urteen buruan erretretarat ganen diren langileak ez omen dira ordezkatuko zuzendariaren ustez. Gainerat, gero eta lanpostu mugatu gehiago egiten da Kausik-en erranetan. Gaur, 30 langile biltzen ditu Senpereko erreken eta arrainen ikerketa zentroak.

Demoen kontrako «gerla ekonomikoa»

Demoen kontrako auzia kalapita eta istilu gogorrek bururatu zen hirugarren aldikotz gan den urtarrilaren 8an. Hirurogoita hiru lagun, hauen artean senpertar batzuk, epaitu zituzten gan den hazilan trenbide bat blokatu baituzten elebitasuna galdezko Iparraldeko tren geltokietan. Iparraldeko gazteek ezin izan zuten eskuaraz deklaratu. Epaileak auzitegia hustea agindu zion polizia-ri. Lurrean jarrita ziren demoak kolpeka kanpo eman zituen poliziak. Hamar lagun kolpatu ziren.



ARGAZKIA: DEIA

Demoen artean senpertar batzuk baziren.

Zortzi egun berantago, 300 eta 400 euro arteko isunak banatu ditu Baionako auzitegiak 63 Gaur, 30 langile biltzen ditu Senpereko erreken eta arrainen ikerketa zentroak.

kendu zaiote hiru gazteeri. Helegitea presentatuko dutela erran dute Demoek «gerla ekonomikorik ezin baita onartu».

Lizardian itzulbidea

Ibarrungo Lizardia parean ibilgailuen itzulbide bat eraikiko dela aurten erran du berriki Senperen Bernard Auroy Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusiak.

Ihauteriak

Ihauteriak otsailaren 21ean ospatuko dira aurten. Arratsaldeko



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Karribakuburu jaun andereen urrezko eztaiak.



ARGAZKIA: FRANCK

Olentzero Senpereko haurrekin.

4etako mozerro lehia-keta baten ondotik, San

Pantzarepaituko da Ibarrungo Inharrean.



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gartzainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gartzaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zalain, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

AZKAIN

Eskola publikoaren haunditzea bozkatu dute herriko hautetsiek

Euskararen aldeko hitzarmena ere sinatu du Herriko Etxeak

Angela eta Xamo

Azken herriko kontseiluan, hautetsiek eskola publikoaren handitzea bozkatu dute. Gure herriko kopurua emendatzen baita, eskola gero ta hertsiago agertzen zen azken urteetan. Proiektu horren bidez, hiru gela izanen dituzte ikasleek, aktibitate desberdinak onerat eremateko. Hautetsiek aitortu duten bezala, badakigu aterabide horrek heldu diren hamar urteko balio duela bakarrik. Gero, eskola berri bat eraiki behar da. Bainan hori bertze ixtorio bat izanen da, jakinez ez dela toki askirik leku berean.

Herriko etxeak euskararen alde

Duela urte bat, Euskal konfederazioak eta Azkaingo herriko etxeak hitzarmen bat izanpetu zuten euskararen ofizialtasunaren alde gure herrian. Geroztik, diagnostiko bat egin izan da, jakiteko zoin zi-



ARGAZKIA: ANGELA

Eskola publikoaren handitzearekin, bertze hiru gela izanen dituzte ikasleek.

ren eskasak eta beharrrak, euskararen ofizialtasunaren tresnak tokian ezartzeko.


Diagnostikoaren lehen emaitzak ateratu dira duela guti. Argitaratu ditu herriko langile batzuk ez dutela euskara ongi menperatzen. Hitzarmena herriko etxean antolatzeko, hautetsiek finkatu dute eskasa horri lehentasuna eman behar diotela. Inposatu gabe langileeri formakuntza proposa-

tua izan zaiote euskara ikas dezaten. Orain arte, zazpi prest dira formakuntza segitzeko.

Azkainen ere gauzak hasten dira aintzinatzen euskararen alde, bainan badakigu ez dugula hortan gelditu behar, badakigu euskarari bere tokia eman behar dio gela herriko bizileku guzietan, bai herriko etxean, bai kultur ta kirol elkarteetan, bai karriketan, bai eguneroko ekitaldietan.

Pilota

Marc Berasategi eta Gabi Ibarburu pilotarietako binakako txapelketak bukatu dituzte. Frantziako txapelketan galdu dute finala hunkitu aintzin, Urruñako Itoiz anaien kontra, 40-39. Gabirentzat lehen urtea izan da pilota ligako lehen mailan. Heldu den urtean, egin dituen aintzimenduak konfirmatzen baditu, txapela lortzen ahalko dutela pentsatzen dugu.



PERTSONAIA

Aratz GOMEZ

18 urteko espetxe zigorra baieztatu dute

Azken sententzia erori da eguberri aintzin: Aratz Gomez eta Arkaitz Saez-ek, Azkain eta Hiriburutarrak, 18 urteko kondena hartu dute. 2001eko urtarrilean, epaituak izan ziren lehen aldikotz eta audientzia nazionalak 18 urteko sententzia onartu zuen. Erabakiaren pisua ikusiz familiak eta abokatuak dei egin dute. Han artean Supremak, Audientzia Nazionalaren sententzia deuseztatzeko erabakia hartu du. Haien ustez, 18 urte horiek froga eta argudio guttiz onartuak izan ziren. Haren argudioak sakontzea eskatu die. Beraz audientzia Nazionalak bere 18 urteko sententzia konfirmatu du bere argumetuak azaldu gabe. Bitxi ki, Supremak onartu eta abenduaren 20an berri eman du 18 urteko presondegiratzea emanez Aratz eta Arkaitzentzat. Urtero bezala, bazkari bat antolatua izanen da urtarrilan Aratz eta Arkaitzen sustengatzeko.

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTION DE CALIDAD CERTIFICADA
SCC-02-0199

Importaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

bentamiguel
dentsa, jantzia eta osasua

Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran

Taldea
Lokarra
Jantokia
Unibertsitate

Ibardingo Lepoa • © 948 631209

SARA

Urte hasierako bilkura egin zuen auzapezak herriko elkarteekin

Elizdorrearen eta teiltuaren berritzeko denbora ainitz beharko da

Xan eta Saski

Urte berriarekin batera, orain usaia den zorionen opatzea izan zen Herriko Etxean. Aniotz-beherek Sarako elkarte guzien arduradunak, irakasleak, herriko langileak eta kontseilua gomiatu zituen urtarrilaren 9an, ortziral arratsarekin. Zorionak opatu eta, azpimarratu zuen elkarteak eta irakasleak duten garrantzia Sara bezalako herri tiki batean. Ondotik aipatu zuen, aurten zoritarreko gertakaririk haundiena izan dena, eliza dorrearen erretzea. Baina baikorki mintzatu zen, erranez asurantzarekin hartutako hitzarmenak bermatzen zituela dorrearen eta teiltuaren berritzea, azpimarratuz denbora ai-



ARGAZKIA: XAN

Herriak ikastolako klase berriarentzat erosi duen etxola.

nitz beharko dela. Bertalde, ezkila zaharren ordezkatzeari dagokionez, herritarren borondatea galdetu du, zehaztuz laster bankuko kontu bat idekia izanen dela diru pixka bat eman nahi dutenentzat. Auzapezaren hitzetan «beharrezkoa da ezkila he-

rritar guzien ontasuna izatea». Bukatzeko, aipatu zituen 2003. urtean egindako lanak eta 2004an egin nahi direnak.

Errugbia

Lehen fasea oso txarra izan bada, saratarak bigarrenari begira

oso baikorrak ziren. Lehen bi matxak arrazoi-na eman diete basurdeei. Joko maila berdina erakutsiz, baina suerte gehiagorekin lehen bi matxak irabazi dituzte. Biak Animaineko zelaian jokatu dituzte eta biak irabazi. Lehena Hossegorren aurka 15 eta 9, eta bigarrena Pomarezen aurka 15 eta 10. Etxean irabazten segituz eta matxa batzuk etxetik kanpo irabaziz pentsa daiteke kalifikatzen ahalko direla.

Joko Berri

Hamahirugarren bi-nakako Joko Berri txapelketa otsailean hasiko da. Azken urteetan bezala lau maila izanen dira. Izenak emateko deitu behar da 0559542369 edo 0559542910.



Marrazki irabazle bat.

Marrazki txapelketa

Eguberriko karietara hemen jadanik aipatu bezala, Turismo Bulegoak marrazki txapelketa antolatu zuen hiru eskoletako haurren artean. Parte hartze ederra izan da, 40 bat haurrek parte hartu dutelarik. Jeloskorik ez izateko hamabi irabazle izan dira, lau eskola bakoitzetan. Azken horiei agiri bat eta liburu bat oparitua izan zaie. Bertze parte hartzaile guzietan berriz, goxokiak. Arrakasta hori ikusiz, antolatzaileak prest dira heldu den urtean ekimen berdina eramateko.



SORTZEAK

Iker Aller Fernandez, Berakoa, abenduaren 25ean.

Gisela Estefania Catota Condor, Berakoa, abenduaren 21ean.

Haizea Urkiola Rebollo, Berakoa, abenduaren 27an.

Ekai Anzizar Senper, Berakoa, abenduaren 29an.

Amaita Zelaieta Martinez, Berakoa, urtarrilaren 4an.

Santi Etxaide Migeltorena, Oronoz-Mugairikoa, abenduaren 29an.

Teresa Mesplé Hidalgo, Lesakakoa, urtarrilaren 1ean.

Mattin Borda Albillos, Lesakakoa, urtarrilaren 1ean.

Garazi Santesteban Otxandorena, Zubietakoa, abenduaren 16an.

Iune Zestau Mariñelarena, Leitzakoa, urtarrilaren 2an.

Itxaro Zestau Gogortza, Leitzakoa, urtarrilaren 7an.

Ibinka Erbiti Baleztena, Donamariakoa, abenduaren 19an.

Oihan Iriarte Jauregi, Donamariakoa, abenduaren 26an.

Jon Otxandorena Irigoien, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 12an.

Juliette Marie Manuela Sarthou, Senperekoa, azaroaren 13an.

Haizea Natalia Passini, Senperekoa, azaroaren 15ean.

Leny Benjamin Titouan Betaille, Senperekoa, azaroaren 25ean.

Lena Halzuet, Senpere, azaroaren 27an.

Jokin Idiart, Senpere, abenduaren 19an.

Ana Agerre, Senpere, abenduaren 20an.

Diego Guy Jean Lopez, Senpere, urtarrilaren 8an.



EZKONTZAK

Philippe Miremont eta **Marie-Pierre Bergeron**, Guiche eta Senperekoa, abenduaren 13an.



HERIOTZAK

Ramontxo Azkarraga Arburua, Urda-zubikoa, urtarrilaren 7an, 45 urte.

Juan Diez Iturria, Berakoa, urtarrilaren 7an, 79 urte.

Maria Luz Txoperena Agara, Lesakakoa, abenduaren 23an, 91 urte

Manuel Larretxea Grajirena, Arantzakoa, abenduaren 24an, 85 urte.

Julian Sarratea Mendiburu, Zigakoa, abenduaren 25ean, 85 urte.

Pilar Urrotz Agerralde, Oronoz-Mugairikoa, abenduaren 25ean, 93 urte.

Maria Setuain Enamoneta, Doneztebekoa, abenduaren 25ean, 84 urte.

Dionisia Erasun Mitxeo, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 26an, 88 urte.

Victoriano Mariezkurrena Irazoki, Berakoa, urtarrilaren 1ean, 81 urte.

Magdalena Inda Maritorea, Arizkungoa, urtarrilaren 4an, 87 urte.

Joaquin Salaberri Legarraga, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 5ean, 87 urte.

Miguel Maria Zabaleta Zestau, Leitzakoa, urtarrilaren 6an, 77 urte.

Miguel Gil Mendi, Elizondokoa, urtarrilaren 7an, 70 urte.

Doroteo Apeztegia Etxeberria, Lesakakoa, urtarrilaren 8an, 94 urte.

Daniel Ziganda Labaien, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 8an, 59 urte.

Maria Jesus Billabona Saralegi, Leitzakoa, urtarrilaren 9an, 80 urte.

Graciana Inda Goñi, Lesakakoa, urtarrilaren 10ean, 87 urte.

Santos Ezkurra Lastiri, Doneztebekoa, urtarrilaren 10ean, 73 urte.

Marie Bonnet, Senperekoa, abenduaren 6an.

André Joseph Marache, Senperekoa, abenduaren 24an.

Jean Cyriaque Marie Lescoffit, Senperekoa, abenduaren 26an.

Jose Maria Burlada Matxikote, Arantzakoa, urtarrilaren 14an, 76 urte.

Segunda Etxebeste Etxebeguren, Berakoa, urtarrilaren 14an, 69 urte.

Josetxo Arrieta Maia, Oiartzunen, urtarrilaren 4an, 43 urte.



**Josetxo
ARRIETA
MAIA**

2004ko ilbeltzaren 4an gure ondotik joan zen gure oroimenetik ez da inoiz joanen.

MAIA FAMILIA



Manuel LARRETXE

*Atautxi joan zara ez zaude
Otsarrako sutondoan,
baina sentitzen zaitugu hagitz
hurbil gertu eta ondoan.
Guretzat izan zara eredu
bizitzan gauza mordoan,
zure izana gordeko dugu
betiko gure gogoan.*

Arantzan, 2003ko abenduaren 24an

FUTBOLA

Beti Gazte eta Baztango infantilek jokatu zuten urteko lehen derbia

Nafarroako infantilen lehen mailan jokaturako 15 partidak irabazi ditu Lesakako taldeak

A.A.

Futbol urtea derbia-ekin hasi zen. Nafarroako infantilen lehen mailan Beti Gazte eta Baztan taldeak izan ziren aurrez aurre Mastegin urtarrilaren 3an eta Lesakako taldea 5 eta 1 nagusitu zen. Etxekoen golak Ibai Retegik, Jaime Seinek, Mikel Aitor Floresek (2) eta Frand Ramosek egin zituzten. Baztandarren «ohorearen» gola Miguel Javier Agerreak egin zuen. Partida honekin bigarren itzulia hasi zuten bi taldeek. Denboraldiko lehen partidaren ere Beti Gaztekoak nagusitu ziren Lekarozen (0-5). Emaizta hauek ez dira harritzekoak Beti Gazteren ibilbidea aztertuta. Jokalari gehienak bigarren urtekoak dira eta iaz, lehen urtean, Nafarroako Koparen finala jokatu zuten. Denboraldi honetan, berriz, hau idazterakoan jokatu dituzten hamabortz partidak irabazi egin dituzte. Kontuan hartu behar da Lesaka, Igantzi edo Doneztebeko futbolarietara, Orioko dozena erdi bat jokalaria ere ari direla Beti Gazten. Duela urte batzuk alebin eta benjamin maila-

ko futbol-7 txapelketan hasi ziren Mastegin eta Gipuzkoan infantil mailan kompetiziorik ez dagoenez, hemen segitzea erabaki dute.

Baztan futbol taldea ere Mastegiko txapelketaren emaitza dela erraten ahal da. Baztan Ikastolak eta San Francisco Javier ikastetxeak azken urteetan taldeak aurkeztu dituzte txapelketa honetan eta adina heldu zaienean, Baztan futbol taldeak infantil mailako taldea zelairatzea erabaki du aurrean, aspaldiko urteetan lehen aldiz.



ARGAZKIA: AITOR

Beti Gazte eta Baztan futbol taldeetako haurrak, Mastegin jokaturako derbia hasi aitzin.

BETI GAZTE (NAFARROAKO INFANTIL 1. MAILA)	
Fred Jose RAMOS LASAGA	1990
Iñigo OSTIZ ESCALADA	1990
Frand Luis RAMOS LASAGA	1990
Luis PEREZ ATXEGA	1990
Asier BIURRARENA UBIRIA	1990
Mikel Aitor FLORES COMPAINS	1990
Mikel ARRUTI REZABAL	1991
Jagoba MANTEROLA IRURETA	1991
Aritz TELLETXEA ANZIZAR	1990
Lander ARRIOLA AGIRRETXE	1990
Ibai RETEGI ZAMORANO	1990
Jaime SEIN OSINAGA	1990
Martin ZULAIKA AZKUE	1991
Igor GURRUTXAGA ERRANDONEA	1991
Kimetz ODRIOZOLA ONDARRA	1991
Ekain ZUBIZARRETA ZUZUAURREGI	1991
Jon SALABERRIA TXOPERENA	1990
Iker TELLETXEA ANZIZAR	1991
Joshua GARCIA HERRANZ	1991
Jokin TABERNA ETXEBERRIA	1990
Mikel ZENOZ VERDU	1991
Javier PARDO PEREZ	1991
Entrenatzailea: Jose Javier PEREZ MEDIAVILLA (Orio)	

BAZTAN (NAFARROAKO INFANTIL 1. MAILA)	
Patxi BENGOTXEA IBARRA	1991
Jon MORENO MARTINEZ	1991
Adur OTXANDORENA BIKONDOA	1990
Jagoba JUANIKORENA IRIART	1990
Joseba MARTINEZ SAN JOSE	1991
Ioritz MITXELTORENA SANSINENA	1990
Imanol ARRETXE GONI	1991
Miguel Javier AGERREA IRIBARREN	1991
Urtzi GONZALEZ IRURETA	1991
Luis Mari ITURRIRIA EGURROLA	1991
Tomas GARMENDIA MUNOZ	1991
Jon FRIAS ITURRIA	1991
Jorge JAUREGI SOBRINO	1991
Mikel ALDAKO ARRETXE	1990
Alejandro ARRONDO MUNOZ	1991
Pablo GAZTELUPE GARAIKOETXEA	1990
Jokin GARMENDIA IRIARTE	1991
Urtzi BARBERENA URROZ	1990
Sergio ESKUDERO EGIA	1990
Entrenatzaileak: Iban SAN JOSE eta Xabier AMEZTOI	

PILOTA

Udaberriko Belate liga urtarrilaren 31n hasiko da

Nafarroako klub guzietako pilotariak gonbidatu dituzte antolatzaileek

A.A.

Aitzineko urteetan bezala Belate elkarteak, behin abenduan udazkeneko eskualde-ligak bukatuta, Nafarroako Udaberriko Belate liga abian jartzera doa. Joan den urteko irailetik abendura pilotariek beraien eskualdeko pilotarien aurka lehiatu dute. Urtarritetik apirilera, berriz, pilotariek Nafarroa osoko pilotarien aurka lehiatu beharko dute. Garai berean jokatu den Euskal Herriko Kluben arteko txapelketan parte hartuko duten pilotariek ezin izanen dute liga honetan jokatu.

Kategoria guzietan eta maila ezberdinetan jokatu da: tikiak (7-8 urte) bi mailetan banatu dira; umeak (9-10 urte) hiru mailetan; ki-muak (11-12 urte) hiru mailetan; haurrak (13-14 urte) hiru mailetan; kadeteak (15-16 urte) hiru mailetan; gazteak (17-18 urte) bi mailetan eta helduak (19 urte eta gehiago) bi mailetan.

Izen emateko epea urtarrilaren 16an akautu zen. Txapelketaren egutegia urtarrilaren 23an banatu da eta lehen jardunaldia urtarrilaren 31n jokatu da.

Partidak, salbuespenak salbuespen, larunbatez jokatu dira. Iaz pilotaleku hauek erabili ziren tiki, ume, ki-mu eta haurren kategorietan: Irurita, Burlata, Igan-



ARGAZKIA: BELATEK UTZIA

Belateko elite mailan, 2003ko eskuz binakako txapelketako kategoria ezberdinetako txapeldun eta txapeldunordeak.

tzi, Lesaka, Lekunberri, Irurtzun, Tafalla, Arantzeta, Etxarri-Aranatz, Getze-Salinas de Pamploña, Larrainzar eta Olaztikoak. Kadete, gazte eta helduetan, berriz, bertze hauek: Undio, Goizueta, Altsasu, Bera,

Leitza, Aurizberri, Erriberri, Barañain, Olazti, Irurtzun eta Tafallakoak. Aurten, bertze markurrik ez bada, hogeita bat pilotaleku hauek osatzen duten zerrenda bere horretan mantenduko da.

Belate pilota elkarteak publiko egin nahi izan du Nafarroako klub guztiak gonbidatu dituela txapelketa honetan parte hartzera, kategoria eta maila bakoitzean nahi adina bikote eta pilotari aurkeztuz.

Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketaren finalak hilaren 24an Beran

Oskar TXOPERENA

Ilbeltzaren 24an, arratsaldeko 16:00etan hasita, jokatu dira Berako pilotalekuan Bortzirietako Banakako III. Txapelketaren finalak. 10 partida izanen dira guzira, tikienetatik hasi -6-7 urteko haurretatik kadeteak bitarteko mailetan. Arantzeta, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako 103 pilotari aritu dira lehian azaroaz geroztik eta, finalak barrenean sartuta, 307 partida izanen di-

ra jokatuak txapelketa bukatzen denarako. Partidak jokatu ondotik sari banaketa izanen da finala jokatu duten pilotarientzat eta txapelketa jokatu duten bertze guzientzat ere.

Hemendik aitzinera kanpora ateratzea egokituko zaie Bortzirietako pilotariei dagoeneko hasi baita Zizurko Banakako Txapelketa eta hilaren ondar aldera Belatek antolatzen duen Nafarroa mailako binakakoa.

TXIRRINDULARITZA

David Seco eta Nekane Lasa garaile Berako ziklo-kros proban

Pronostikoaz bezetaz, Golf Artxanda taldeko David Seco txirrindulari haundiak irabazi zuen urtarrilaren 4an Beran egin zen ziklo-kros proba, ibilbide gogorra ordubete, sei minutu eta 4 segundutan betez. Gisa honetara, denboraldiko zortzigarren garaipena eskuratu du txirrindulari bizkaitarrak. Bere gibeletik, minutu eta zazpi segundura Graman taldeko Isaac Suarez sartu zen eta Debarrena taldeko Hartz Ortizek osatu zuen podiuma, irabazlearengatik bi minutu eta segundu batera sailkatu ondotik. Debarrenako Zuzgaitz Ayuso laugarren izan zen eta Ciclos Portugalete taldeko Joseba Leon bosgarren.

Emakumeen artean, Debarrena taldeko Nekane Lasa izan zen azkarrena. Berako proban, gainera, emakumeek Euskadiko Federazioari egindako eskakizunak bete ziren, aldagelak aparte izatea, mutilen aitzinetik ateratzea, podiuma eta sariak, bertzeak bertze.

Junior mailan, Ibaigane Opel taldeko Jokin Irazola izan zen bizkorrena eta kadete mailan, Tejas garrendia taldeko Jon Izagirre suertatu zen garaile.

AGENDA

egunez
egun

OLERKIA

SENPERE

Urtarrilaren 30a arte irekia dago Senpereko Hatsa elkartearen seigarren urteko olerki bildumarentzat, Euskal Herri Osoan egiten duen idazlan bilketa. Elkarrekin galdetzen du olerkari guzieri (ezagutuak izan edo ez izan) bidali ditzaten beren zorbait olerki eta argazki bat norabide huntara:

Hatsa Elkarte

Oxtikenea

FR 64310 EH Senpere

hatsaelkarte@aol.com

Euskaraz idatzitako olerki guzikiak, banaketarik gabe, onartuak dira. Liburua apirilaren 4an aurkeztua izanen da, Senpereko Oxtikenean.

TELEBISTAKO TXOKOA



AILEGATU DIRA IÑAUTERIAK

Joaldun, karroza eta mozorro besta ttipi-ttapa Telebistan

Iñauterien data ofiziala otsailaren hondarrean da aurtengoan, baina jakina da gure inguruan Errege eguna igarota leku aunitzetara ailegatzen dela mozorro, joaldun, karroza eta atsoguratuen besta. Erraterako, Eratsunen eta Orabi-dean ilbeltzeko bigarren aste hondarrean egin zituzten. Orain, ttipi-ttaparen eremuan ezagunen egin diren iñauterien txanda ailegatuko da: Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunen pulunpa soinuak, Sunbillako karroza ikusgarriak eta Leitzako atsoguratuen joan-etorriak asteburu honetan izanen dira eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAK, urtero bezala, iñaute egun hauen berri ematen

duzue. Igandean, nola ez, urtetik urtera indartsuagoa eta irudimentsuagoa suertatzen den Sunbillako karrozen desfilearen irudiak grabatuko ditugu. Dena den, igandea azken eguna dute Sunbillan eta aitzinetik egiten dutenaren berri ere izanen duzue heldu den astean. Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldun eta mozorroek, heldu den astelehen eta asteartean eginen dituzte joan-etorri jendetsuenak. Jendetza ikaragarria biltzen dute ekitaldi hauek eta aunitzetan ezin izaten da xehetasun guzieren berri norbere begiekin bildu. Horretarako aukera ederra, ttipi-ttapa telebistan izanen duzue.

DISKAK



«Belardi»

BELARDI

ELKAR, 2003

Belardi taldea, hiru ahots eta piano formazioan, 1999. urtean eratu zen, lau antzerkilari zein musikari profesionalen elkartzetik: Frantxoa Cousteau (baxenafartarra), Maialen Estecahandi (zuberotarra), Txomin Heguy (lapurtarra) ahotsetan eta Karlos Giménez (gipuzkoarra) pianoan eta moldaketetan. Abestia, alegia melodiararen eta poesiaren arteko nahasketa magiko bezain delikatu hori, izan da hasieratik beren helburua eta horretaz baliatuz, kontzeptu argi, zuzen eta iraunkor bat barreiatzen dute: kantu ederrak interpretatzearen artea eta plazera. Taldearen lehen disko hau berde bezain itzaropentsua duzu, talentu berrizalez gainezka hornituriko 14 kantu soil, orekatu eta oparo aurkezten dituenak. Euskal kantu popularrak lantzen du bereziki, n baita garaiko euskal olerkarien kantu lirikoa ere.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urtarrilaren 2tik 9ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 33,50 € (+3,50 €)

Zerri gizona
0,790 € kilo. (-0,013)

Zerramak:
0,40 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3, 10 (=)

1.koa 2,98 (=)

2.koa 2,85 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,15 (=)

1.koa 3,05 (=)

2.koa 2,92 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 233,00 (=)
idixkoak 235,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 182,00 € (=)
idixkoak 206,00 € (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,80/2,86
Zaldi-behorrak: 1,70/1,80
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,80 / 6,20
8-10 kilokoak: 4,70 / 5,20

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Nahasketa bipolarra

Nahasketaz bipolarrarekin elkarbizitzea ez da errea, tratatu gabe dagoen bitartean. Nahasketa bipolarrean, animo egoerak tartekatzen dira, beraz pertsona hila-bete batzuetan fase depresiboan dago eta bertzeetan fase maniakoan. Garrantzitsua da eritasun honen sintomak ezagutzea, seguruenik eri bipolarra ez baita bere borondatez medikuarengana joanen. Horregatik, aunitz familiarako izanen dira mediku kontsultara joanen direnak.

- Konzentrazio falta.
 - Gehiegi solasten du.
 - Ekitaldi inkontzientek (kontrolrik gabeko erosketak, ondorioak kontuan hartu gabe inbertitzea...).
 - Dena egiten ahal duela uste du.
- **Fase depresiboaren sintomak:**
- Tristura sakona.
 - Nekea.
 - Lorik ezin egin edo lo sobera egin.
 - Apetitua galtzea edo haunditzea.
 - Kulpasentimenduak.
 - Bizitzaren interesa edo bizipoza galtzea.
 - Bere burua hiltzeko pentsamenduak.

ZEIN DIRA SINTOMAK?
– **Fase maniakoaren sintomak:**

- Animo alaietako egoera (edo errea, zerbaitek bere planak zapuzten baditu).
- Lo egin beharrik ez duenaren sentipena.
- Egiteko plan aunitz ditu.
- Ez da nekatzen.

ERITASUNAREN ARRAZOIAK
Nahasketa honen arrazoiak ez dira zehazki ezagutzen, baina uste da burmuinean dauden sustantzia

Egunero 8-9 ordu lo egitea komeni da: gehiegi lo egiteak depresioa laguntzen du eta guttiegi egiteak maniara bideratzen ahal du.



Animo egoerak tartekatzen dira nahasketa bipolarrean: maniakoa eta depresiboa.

batzuk, noradrelina, serotonina eta dopamina zehazki, gaizki funtzionatzen dutela. Burmuineko «akats» honek nahasketa hau izateko kalteberagoak bihurtzen gaitu.

TRATAMENDUA
Gaur egun tratamendu farmakologikoa (animo egoera egonkortzeko) tratamendu psikologikoarekin (sintomak ezagutzen erakusteko, tratamendua ez uztera motibatzen, estresa sortzen duten egoerei aurre egiten erakusteko...) konbinatzen dira.

ZERE EGITEN AHAL DU ERIAK BERE ERITASUNAREKIN?

- Norbere burua begiratu: Animo egoeren aldaketei erreparatu, gaixoberritza ez gertatzeko. Aldaketekin ez fidatu.
- 8-9 ordu lo egin egunero: gehiegi lo egiteak depresioa laguntzen du eta guttiegi egiteak maniara bideratzen ahal du.
- Drogarik ez hartu: animo egoera aldatu eta gaixoberritzea sortzen ahal dute.
- Medikazioa ez utzi.
- Eritasuna ez ukatu, berekin elkarbizitzen ikasi.

Rakel AMIGO
Bortzirietako Gizarte Zerbit.

LIBURUAK



Kolosala izango da

Joseba SARRIONANDIA

TXALAPARTA, 2003

Kontakizuna Kalaportun gertatzen da, gerra garaian. Iurretako idazleak haur baten begirada hartu du bere istorioa kontatzeko. Izan ere, umeentzat gerra zirkoaren antzekoa izan daiteke. Eta zirkoa etorriko da herrira, aita errepublikaren kontra altxatu direnekin joan den bezalaxe. Gerra hor dabil edonon oraindik, bizitzaren eta ederra eta samurra den guztiaren aldarnetik, baina laster helduko da zirkoa. Munduaren ordu ago-

niko hauetan etorriko da, eta kolosala izango da. Zirkoa Alemaniatik helduko da. Letrero handi honekin: Cirque Krone. Eta tren bagoi pilo batekin, elefanteekin, lehoiekin, tximinoekin, pailazoekin, ezpata irensleekin, emakume bizardunekin. Globo saltzaileak ere etorriko dira euren koloretako planetekin. Kalaportura iritsiko dira guztiak. Kolosala izango da. Eta orain alemanek Frantzia okupatu dutenez gero, agian lehenago ailegatuko da.

IÑAUTERIAK

SUNBILLA

Urtarrilaren 23tik 25era.
Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ITUREN-AURTIZ

Urtarrilaren 25tik 27ra
Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ZUBIETA

Urtarrilaren 25tik 27ra
Xehetasunak erdiko gehigarrian.

LEITZA

Urtarrilaren 24tik 27ra
Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ZINEMA

BERA

Urtarrilaren 22an 20:30etan
Kultur Etxean, «Los espigadores y la espigadora» filmearen emanaldia, Zine-Klubaren barnean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Urtarrilaren 19tik 25era

Bera (M.J. Sanz), Ituren, Irurita, Leitza (M.T. Plaza).

Urt. 26tik otsailaren 1era

Lesaka (O. Altzate), Doneztebe (S. Larraioz), Arizkun, Oronoz-Mugairi, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

Otsailaren 2tik 8ra

Arantza, Bera (M.L. Apeztegia), Narbarte, Elizondo (J. Iturralde), Leitza (A. Gimeno).

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konparituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 948 631584, 619400202 edo 650831392.

BERA-LESAKA-ETXALAR.

Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 687 039889.

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

LEITZA. Lur eremua salgai, Basakabi ondoan. ☎ 628 535954.

LANA

301 Eskariak

Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta haurrak edo adinekoak zaintzeko. ☎ 626 852937.

Emakumea eskaintzen da

kamarera lan egiteko. Frantsesa eta euskara. Autoa badut. ☎ 650 772171.

LANA

302 Eskaintzak

Frantses pixka bat dakien neska behar da 6 hilabetez lan egiteko (dendan). ☎ 948 631100 / 666419042.

Zerbitzaria behar da Bera-ko jatetxe batean lan egiteko. ☎ 619 400202 edo 650 831392.

ELIZONDO. Etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ 679 402102

ADOS

- **BERA.** - Terreno bat erosi nahi da. - Beran pisu bat erosten da.
- **DONEZTEBE.** - Santa Luzia plazan apartamentu eta pisu berriak salgai.
- Terreno eraikigarria salgai.
- Bigarren eskuko pisuak salgai.
- **ELIZONDO.** - Pisu pare bat salgai
- Terreno bat erosi nahi da.
- **ITUREN.** - 5 garaje egiteko lizentzia duen lur eremua salgai.

BAZTAN-BIDASOAN: terreno eraikigarriak salgai. Borda eta baserriak erosi nahi dira.

948 451 841 / 607 978 656

na behar da. ☎ 679 402102

DONEZTEBE. Jatetxe batean langile bat behar da. ☎ 617333015 / 948451902.

Mekanikoa. Nafarroako Gobernurako ibilgailuen mantnimendua, plaza libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Gidariak. Nafarroako Gobernurako eta Udaletxeetarako. Plaza libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Haur Hezkuntza plaza libre ikastetxe publiko eta haurtzaindegietan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 202 plaza libre Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Zaintzailea. Nafarroako Gobernurako 16 plaza libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

L n l z l t z

<p>L NESK INTZ</p> <p>71 n stul r</p> <p>I U ET</p> <p>V L</p> <p>m n s t r i u t z l k</p> <p>r k l r z n k</p> <p>m n t n m u v r e t o k</p> <p>r t z l k t z n e z t e</p> <p>h z t l e z r t u n t z c</p> <p>L N STU</p> <p>L I E K</p> <p>s n m k u t z a k</p> <p>l u r r l u n t z l k</p> <p>s h t z l k m s t r r</p> <p>l u n e z l k n l k</p>	<p>L NESK INTZ</p> <p>H U HEZKUNTZ</p> <p>Z a u u i k t</p> <p>u r t e r t n</p> <p>l a s t u r l</p> <p>L TEGI</p> <p>TEKNIK IK</p> <p>1 n s t u l r</p> <p>N P K</p> <p>G E NU</p> <p>G I K</p> <p>2 l n s t u</p> <p>3 l n s t u l e</p> <p>1 f n s t g a r r l k</p> <p>t z n l n l k</p>
---	---

r s t z t z. h k n f r m z .

1 5

BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien bilketa egunak

2004ko otsailaren 5ean

Bera9etatik 12etara

Etxalar13etatik 14etara

☎ 948 635 254 - Etxalar

Administrari laguntzailea. Nafarroako Gobernurako plaza libre. Burlata, Berriozar, Auritz, Galar, Lizarra. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Harreragilea-telefonista. Nafarroako Gobernurako eta Udaletxeetarako plaza libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Udaltzaina, plaza libre. Berriozarren, Lizarran, Zizur Nagusian. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Suhiltzaileak lanean laister hasteko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Foruzainak lanean laister hasteko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.



LARRALDEA SAGAROTEGIA

Txotx denboraldia irekia

- Telleri auzian, Lekarozko elizaren eskuinetik hartu eta 1,5 kmtara.
- Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua.
- 100 lagunendako lekua jarrita.

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

MOTORRA

501 Salerosketak

Renault Super 5 GTL salgai, egoera oso onean. NA-Z matrikula. 130.000 km. ☎ 619 912275 - 948 450996.

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Jeep Grand Cherokee, Mitsubishi Montero 3-5 atekoa, Frontera TD 3 ate, Mitsubishi IO, Peugeot 206, Galloper, Frontera motza SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

SAMPI ARAGON ZDANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu

☎ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

Opel Zafira 2.0 TDI 100CV Elegance salgai. Gris metalizatua, BBR matrikuladuna. Egoera hagitz onean. ☎ 948 630604 (arratsetan).

Citroen Saxo salgai, 2002koa, gasoila. 8.500 km, berri-berria, gris kolorekoa. ☎ 696 641455.

Citroen C15 salgai, NA-AG matrikuladuna. ☎ 616 756359.

BOAN TAILERRA

AUTOEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA

☎ 948 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerra

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA FIAT Zerbitzua



“Zure begiendako, jar zaitetz esku onetan”

KIRURGIA:

Miopia
Astigmatismo
Hipermetropia
Bista nekatua

Zuen poztasuna da gure garantiarik onena




Donibane Lohitzuneko Poliklinika: **San Juan de Luz laser**
0033 559 513 144

Citroen Xsara 1.9 TD salgai, egoera onean. ☎ 619 748775.

Kawasaki KX 250 ccko motoa salgai, 1999koa. Prezio eta egoera onean. ☎ 626 042659 - 948 450882.

Fiat Punto Sporting autoa salgai, 2002 urtekoa. Prezioa: 1.400.000 pezeta. Urte beteko garantia. ☎ 650 297455 edo 948 630292.

Nissan Patrol autoa salgai,



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeke, bidali kartazala zure helbidearekin.



ELIXABETH LE-KUBERRIAK urteak bete ditu urtarriaren 5ean. Zorionak atxa, ama eta bereziki Izaskun eta Ekiñeren partetik.




MIKEL ARBURUA beratarak 27 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



IORITZ ARBURUA beratarak 4 urte beteko ditu urtarriaren 24an. Zorionak familiaren partetik.



UXUE ZELAIETA DANBORIENA beratarak 6 urte bete ditu urtarriaren 17an. Zorionak eta muxuak amaxi, Jon, atxa eta amaren partetik.



IORITZ ARBURUA LEONIS beratarak 4 urte beteko ditu urtarriaren 24an. Zorionak gurasoen eta Ikeren partetik.



IORITZ ARBURUA LEONIS beratarak 4 urte beteko ditu urtarriaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat ataxi eta amaxiren partetik.



ARANTXA SANTESTEBAN zubitarak 26 urte bete zituen urtarriaren 2an. Auniz urtez Lope, txanpainaren esperun gaude!



AINHOA ARIZTEGI itundarrak 25 urte bete ditu urtarriaren 14an. Zorionak kamarera, aber noiz gonbitzen gaituzun kafe batera, bino anisekin eh!




JOSUNE IBARRA itundarrak 23 urte bete ditu urtarriaren 14an. Urteak bete ta bete ta halaro izanen zara beti guretzat Josune ttikia. Zorionak!



ARANTXA ARIZTEGI itundarrak 26 urte bete ditu urtarriaren 19an. Auniz urtez useptene ta txanpaña freskatzen patu!



GORETZI ALTZURI itundarrak 24 urte bete ditu urtarriaren 18an. Auniz urtez Matxaxpe, nahiz ta Bartzelonan egon etortzekin ospatuko dugu.



JOSEBAK 7 urte beteko ditu urtarriaren 21ean. Zorionak txapelidun, attatto eta amattoren partetik.




IRATI IBARRA DAGERRE ETA IZARO LARRALDE IBARRAK 2 urte beteko dituzte otsailaren 2an eta urtarriaren 26an. Zorionak Ariz eta Ugaitzen partetik.



IZARO LARRALDE IBARRA beratarak 2 urte beteko ditu urtarriaren 26an. Zorionak gurasoen eta Ugaitzen partetik.



XABIER BIDAUR TELLETXEA igantziarrak 4 urte beteko ditu urtarriaren 25ean. Zorionak eta muxu bat familia osoaren eta bereziki Jonen partetik.




Urtarileko **LAUKOTE** honeri zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



JUAN MARI ETA MATTIN LOPEZ lesakarrak urtarriaren 15 eta 20an urteak beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik, berexiki Maddalenen partetik. Afari on baten zain gaude.



SENPEREKO ERREBIRA ko amaxik 80 urte bete baititu, 80 muxu familiaren partetik.



IZARO IPARRA-GIRRE IRIGOIEN lesakarrak urtarriaren 21ean urte bat beteko du. Zorionak familiaren partetik.



IRATXE OTXANDORENA PIKA-BEAK 4 urte bete ditu urtarriaren 18n. Zorionak eta mila muxu familiaren partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

sei zilindrokoa, NA-S matrikuladuna. 3.500 euro. ☎ 660 377717.

Nissan Patrol motza salgai, NA-S matrikuladuna, tetxo altuarekin. ☎ 655 706073.

DENETARIK 702 Salerosketak

Trikitixa salgai, Zero-Sette markakoa. Bortz ahotsetakoa. Gutxi erabilia, prezio onean. ☎ 948 580179.

Gaztain eta arkazi piketak salgai. ☎ 616 756 359.

Bi negutegi (invernadero) dauzkat salgai. ☎ 615 7136066.

Erretiroa dela eta **traktorea salgai** bere osagarriekin (ro-

tabatorea, etabar...). Prezioaz solastuko dugu. ☎ 948 407500 (eguerditan).

BERRIKUNTZA

- Multimedia bidezko teorika
- Entzute bidezko teorika (CD, kasette)
- Teorika klase partikularrak
- Atzeritarrei egokitutako teorika klaseak (nazionalitatearen arabera)

☎ 948 630 800

ALZAGA

☎ 948 630 800 • Legia 42 • BERA

Gustuko zerbait aurkitzen dugunean zurekin konpartitu nahi dugu



E.S. JOSENEA

DANTXARINEA

Tfnoak.: 948 599 090 • 629 88 05 57

E.S. DONEZTEBE

DONEZTEBE

Tfnoa.: 948 450 282 • 948 450 597



Gaupasa

LANDIBAR AUZOAN URDAZUBI- NAFARROA

Otordu handiak • Famili bilerak



Ugarana jatetxean

Kinto bestak • Koadrila afariak
Despedidak...



Kupela sagardotegian

Trago eta pintxo goxoak



Mikela ostatuan

**Etorri
probatu
eta gozatu**

**Erreserbak:
(0034) 948 599410**

Besta, saltsa eta dantza...



La Nuba diskotekan

